Musika eskolak
Ibarrekoek kontzertua egin zuten Bergaran
KULTURA, 22-23

Aloña Mendi eta UDA garaile izan dira etxean
Mondrak, berriz, 2-3 galdu du Berioren aurkako norgehiagokan
KIROLA, 12-13

Mikel Laboa
Harekin aritu gara bere azken lanaz
KULTURA, 26

ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko abenduaren 5a • 2. urtea • 81. zenbakia • 0,90 euro

Ekimenak nongura Euskararen egunean

60ko hamarkadako hamaika euskara irakasle omendu zituzten Bergaran 2-3

AITOR LIZARRALDE

Izaskun Ximeno, Kristina Gomez, Pili Gonzalez, Edurne Arzelus eta Lupe Olabarriak jaso zuten oroigarria. Beste sei omenduek ez zuten han egoterik izan.

AITOR LIZARRALDE

SAUSSEN MUNDUA ERAKUTSIKO DIGU ORFEOIAK LASTER

Astebete geratzen zaio Bergarako Orfeoiari *Seussen Mundua* musikalaren aurrestreinaldirako. Domekan izango da, Santurtziko Serantes aretoan. Handik, Euskalduna Jauregira eramango dituzte Non oihaneko eta Nor planetako bizilagunak. Broadwayko musikalen erara aurkeztuko dute abenduaren 27an. Entseguan izan gara eurekin. 20-21

Arrasateko akordeoi lehiaketako sari handia bihar 24

Turismo bulegoek eskaintza berezia dute asteon 6

Euskal Curriculumaren aldeko eguna

Bihar izango da eta ekitaldiak egongo dira Arrasaten eta Bergaran 8

GUREAN

• Arrasateko Irati tabernak eta Arrano elkarteak 25 urte bete dituzte | 4
• Gaztetxeen eta Gazte Asanbladen gida aurkeztu zuten zapatuan | 6

Agurtzane Diez de Uribide Hondurasko hauteskundeetan egon da ikuskatzaile | 7

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

AITOR LIZARRALDE

Hainbat talde eta elkarteetako ordezkariek hartu zuten parte Bergarako ekitaldian.

EUSKARAREN ALDE | OIHARTZUN HANDIA ETA ERANTZUN ZABALA IZAN ZUEN EUSKARAREN EGUNAK DEBAGOIENEAN

Gazteenei zuzendu diete bereziki euskaraz jarduteko mezua aurten

Euskararen Nazioarteko Egunak oihartzun zabala izan du gurean. Euskara elkarteak, Udalak eta ikastetxeak arduratu dira ibarrean euskararen aldeko deia zabaltzeaz

Jon Berezibar

Beste urte batez, ehunka euskaltzalek hizkuntzarekiko ardura berretsi eta normalizaziorako beharrezko neurriak hartzeko deialdia egin dute euskara eta kultura elkarteekin batera. Gurean ere oihartzuna izan du egunak eta ia herri guztietan antolatu zituzten zapatuan Euskararen Egunarekin bat egiteko ekitaldiak.

Arrasateko Euskalgintzakoek haur eta gazteei modu berezian eragiteko egitaraua gertatu zuten, futbito txapelketa eta gazte bazkariarekin. Leloa: *Euskara orain eta beti*, eta helburua hausnarketa eragitea. Horretarako, herritarrei euskararekiko arduraren gainean egin zieten galde. Arratsaldean gaztaina erreak, taloak eta sagardoa banatu zituzten herriko plazan, Aretxabaletan moduan. Han gainera, *Jaxinto*ren bisita berezia jaso zuten, Loramendi elkarteak gonbidatuta. Euskararen aldeko mezua zabaldu zuen *Jaxinto*k eguerdian eta ordu horretan bertan, baina Eskoriatzan, ludotekaren eskutik, jolasak egin zituzten. Oñatin herriko plazan eskegi zituzten neska-mutikoek idatzitako mezuak eta Elgetan elkarretaratzea egin zuten.

OMENALDIA BERGARAN

Jardun elkartekoekin batera, AEK eta EHE taldeek antolatu zuten eguna Bergaran, Udalaren eta ikastetxeen laguntzarekin. Euskararen aldeko deia egin eta hainbeste urtetan hizkuntzaren zabalkundearen alde lanean ibili direnei omenaldia egin zieten eguerdian. Hala, Bergaran 60ko hamarkadan euskara irakasten hasi ziren emakumeei merezitako ohorea egin zieten. Ikastolen hastapenetan lehenengotako herria izan zen Bergara, Koldo Eleizalden ematen hasi ziren eskoletan. Garai latz haiek gogora ekarri eta irakasleei egindako lan handia eskertu gura izan zieten herritarrek. Horretaz gain, Euskal produktuekin osatutako otzara bat ere zozkatu zuten eta 268 zenbakia izan zen saritua, Jardunek jakinarazi digunez.

Hausnarketa eragitea izan da ekitaldien helburu nagusietako bat

Bergaran 60ko hamarkadan euskara irakasten hasi zirenei egin zieten omenaldia

LAN ETA IKASI, EUSKARAZ

Asmo berarekin, Arizmendi ikastolak 25 urte irakaskuntzan bete dituztenei egingo die omenaldia gaur, astelehena. Ibarreko gainerako ikastetxeek ere hainbat ekintzarekin ospatu dute Euskararen Eguna. Aurten, amaitzeko, lan munduan zabaldu gura izan du mezua Kontseiluak *Lan munduan, bai euskarari* leloarekin.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

• MAKINA BAT EKITALDI BAINA MEZU BAKARRA: EUSKARAZ ORAIN ETA BETI

Haurrek marrazkiak egin zituzten Oñatin.

Eskoriatzan aurpegia zein orrian marraztu zuten umeek.

Gazte bazkaria egin zuten Arrasaten AED elkartean.

Gaztetxoengan zentratu dira aurten eguneko ekitaldiak.

Gaztaina erre jana egin zuten Aretxabaletan.

• LEHENENGO EUSKARA IRAKASLEAK OMENDU ZITUZTEN BERGARAN

KRISTINA GOMEZ

"Francoren garaia zen eta liburu guztiak erdaraz zeuden. Ahalegin handiak egin genituen haiek euskaratzeko eta, gainera, oso kontrolpean geunden. Gurasoen laguntza handia izan genuen sasoi hartan".

PILI GONZALEZ

"Urtero egiten zigun Guardia Zibilak azterketa. Fitxa geneukan irakasle bakoitzak eta koartelera joaten ginen itaunketa bati erantzutera. Zuzendariari buruz eta ea euskaraz irakasten genbiltzan galdetzen ziguten".

EDURNE ARZELUS

"Irakasteko erak bestelakoak ziren orduan. Baliabide oso gutxi geneuzkan, azpiegiturarik batere ez, baina alor metodologikoan oso aurreratuak ginen eta hori ilusioz eta lan handiarekin besterik ez da lortzen".

IZASKUN XIMENO

"Halakoa zen eskolen egoera ekonomikoa, geure poltsikoetatik ordaindu behar izaten genituela ikas-materialak. Lehen magnetofonoa, adibidez, kalean eta gurasoen artean egindako diru-bilketa bati esker erosi genuen".

LUPE OLABARRIA

"Oraindik ere lan itzela dago egiteko. Etorkin asko dabil heltzen eta horiek ere euskaldundu egin behar dira. Azken urteetan beherakada egon bada ere, azkenaldian berpiztu egin da ilusioa. Bide luzea geratzen da aurretik".

BergaraCars
Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D . . . . . BERRIA
BMW 320 I . . . . . BERRIA
BMW 320 D 2005
BMW X3 D . . . . . BERRIA
BMW 320 D . . . . . BERRIA
BMW M3 2003
VW TOUAREG . . . . . HAINBAT

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

VW PASSAT TDI 2003
MB ML 320. . . . . HAINBAT
BMW 320 D TOURING. . . . 2003
BMW 330 D TOURING. . . . 2002
AUDI A4 TDI AVANT . . . BERRIA
AUDI A6 3.0 TDI . . . . . BERRIA
AUDI TT 1.8T. 2002

Paroten aurkako "azken eraso politikoa" salatu dute

Entzutegi Nazionalaren eskaera betez gero, bost urte barru beste 30 urte egin beharko ditu presoak espetxean ETAko kide izatea egotzita

J. B.

"Bizi guztirako ezarri dioten kartzela zigorra eta auzitegian jasotako jipoiak" salatzeko egin zuten manifestazioa egubakoitzean Arrasaten, Askatasunak deituta. Presoaren egoera eta baldintzak "okertu" egin dira azaroaren 18an Grande Marlaska epailearen aurren deklaratu zuenez geroztik.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Hainbat herritarrek egin zuten bat Askatasunaren deiarekin.

"BERRIZ ERE JIPOITUA"

Askatasunak azaldu duenez, "helburu mendekatzaileekin hartu dituzte neurriak Unai Paroten aurka, erredentzioak kendu eta bizi osorako kartzela zigorra ezarriz, 60 urte guztira". Era bereAn, presoak jasotako "azken jipoia" salatu zuten egubakoitzeko agerraldian. Askatasuna taldeko ordezkariek adierazi zutenez, Entzutegi Nazionalean jasan zuen azaroan azken erasoa, senideek bere garaian ohartarazi zuten moduan.

Azaroaren 17an izan zen Unai Paroten azken epaiketa eta berriz ere banda armatuko kide izatea egotzi diote. Azken urteAn Entzutegi Nazionalean Parotek aurre egin behar izan dion bigarren prozedura judiziala da hau eta fiskaltzaren eskaera betez gero, beste 30 urteko espetxe zigorra bete beharko du, aurrekoekin batuta 60 urte lirateke, hortaz.

Elkartasun denda ireki du Harremanek Arrasaten

A.G.

Gabonen atarian Harreman gobernuz kanpoko erakundeak elkartasun denda zabaldu zuen egubakoitzean. Arrasateko Ferrerias kalean dago eta abenduaren azkenera arte egunero egongo da zabalik: astegunetan, 18:00eatik 20:00etara eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara. Bidezko Merkataritzako Produktuak eskuratu ahal izango dira. Hainbat produktu erosteaz gain, herri pobretuetan sortutako artisautza ere egongo da ikusgai.

Egubakoitzean jai giroan ireki zuten Ferrerias kaleko denda. Goikobalu abesbatzak kontzertua egin zuen parrokian eta gero, luntxa egin zuten. Bestalde, hilaren 29an Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak Gabon kanten kontzertua egingo du parrokian. Batuko den dirua Harremanen proiektuei laguntzeko izango da.

AAITOR LIZARRALDE

Luntxa egin zuten denda berriaren irekiera ospatzeko.

Irati tabernak eta Arranok 25 urte

M.B.

Arrasateko Irati tabernak eta Arrano elkarteak 25 urte beteko dituzte Santamasetan. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte abenduaren 20rako. Hala eta guztiz ere, zapatuan, dagoeneko, hasi ziren urtemuga ospatzeko ekitaldiekin. Hala, bazkaria egin zuten 45 bat lagunek Arranon. Adin guztietako lagunak batu ziren eta bazkaldu ondoren, abestu egin zuten esku orriekin eta trikitilariek lagunduta. Horrekin batera, iluntzean, Zarauzko Stokolm taldeak kontzertu akustikoa egin zuen Iratin. Ekitaldiok hilaren 16an jarraituko dute, bertso afariarekin. Joateko Iratin eman behar da izena, 15 euroren truke.

Urtemuga hilaren 20an izanik, ekitaldirik potoloenak egun horretan izango dira. Esaterako, elkartearen historia batzen duen argazki erakusketa antolatzen dihardute. Hala, herritarrei argazkiak lagatzeko eskatzen diete antolatzaileek.

AITOR LIZARRALDE

Adin guztietako 45 lagun batu ziren zapatuko bazkarian Arrano elkartean.

AMODIOZKO GUTUNEN
XIV. BERRIGARA LEHIAKETA

SMS Bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa

Antolatzailea: Jardun

Laguntzaileak: Goiena Komunikazio Zerbitzuak; Gipuzkoako Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritza; Bergarako Udala

Oinarriak:

Amodiozko gutunen XIV. Lehiaketa
- **Adina:** 15 urtetik gorakoendako
- **Lanak:** jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskarazkoak, originala eta hiru kopia bidali behar dira
- **Epea:** urtarrilaren 5era arte
- **Nora bidali:** Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara edo e-posta: kulturajardun@topagunea.com

SMS bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa
- Pertsona bakoitzak mezu bakarra bidal dezake
- Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz
- **Epea:** urtarrilaren 1etik 15era
- **Nora bidali:** 605 71 24 69 edo kulturajardun@topagunea.com

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Egubakoitzean egin zuten prentsaurrekoa Tokiko Hedabideetako ordezkariek Donostian.

Dirulaguntzen atzerapena eta gutxitzea salatu dute

Jaurlaritzaren laguntza urte amaieran jasotzea funtzioamendurako traba dela salatu dute Tokiko Hedabideek

A.G.

Euskal Herriko Tokiko Hedabideek salatu dutenez, "Jaurlaritzaren dirulaguntza, urtea joan eta urtea etorri, atzerapenarekin jasotzen dugu; eta dirulaguntzaren kopurua urte amaiera arte ez ezagutzeak, eta laguntzen ordainketa atzeratzeak segurtasun falta eta diruzaintza arazoak eragiten dizkigute tokiko hedabideei".

Prentsaurrekoan adierazi zuten Tokiko Hedabideek euren kexa, joan zen egubakoitzean Donostian. Agerraldian adierazi zutenez, Jaurlaritzak abenduaren lehenengo egunean argitaratu ditu 2005 urteari dagozkion dirulaguntzak.

Horrekin batera, Jaurlaritzari eskatu diote dirulaguntzak ez jaisteko; izan ere, "azkeneko lau deialdietan jasotzen dugun dirulaguntza ez da hazi".

Topagunean federatutako tokiko hedabideek jasotzen duten dirulaguntza "%6 jaitsi da eta gastuak, berriz, %11 igo dira", adierazi zuten prentsaurrekoan.

%6 jaitsi da Topagunean federatutako tokiko hedabideek jasotzen duten dirulaguntza

TELEBISTARI TXIKIAGOA

Jaurlaritzari dirulaguntzen politika aldatzeko eskatzeaz gainera, tokiko hedabideek salatu dute tokiko telebistek, 2004an, 150.000 euroko laguntza bakarrik jaso dutela eta "diru hori euskarazko programazioa egiten duten gaztelaniazko telebistekin banatu behar" izaten dela.

Topagunea elkartean federatutako 36 herri aldizkarien izenean egin zuten prentsaurrekoa egubakoitzean. Ekitaldian Joxemari Muxika eta Jasone Mendizabal, Topaguneko lehendakari eta zuzendariak hurrenez hurren, eta Alberto Agirreazaldegi, Herriko komunikabideak kooperatibako lehendakaria izan ziren, euskararen nazioarteko egunaren bezperan. Aditzera eman zutenez, "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian euskararen erabilpena sustatu behar dela esaten da, eta helburu hori aurrekontuetan ez gauzatzea kontraesan handia da".

AITOR LIZARRALDE

Asteburuak piztu nahi dituzte ekitaldiokin asanbladakoek.

17 bikotek jardun zuten buruz buru briskan eta xakean Aramaion

M.B.

Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatutako briska eta xake txapelketan adin guztietako 34 lagunek hartu zuten parte zapatuan. Xakean 10 lagunek jardun zuten, gehienak umeak –eskolan hasi berri dira xakea ikasten–, eta lehenengo saria 11 urteko Juanek eraman zuen. Bigarrena, berriz, Lierni Altunak. Briskari dagokionez, 12 bikotek hartu zuten parte. Lehenengo saria jaso zuen Martin Arriolabengoa eta Ana Martiarenak osatutako bikoteak eta, bigarrena, Andoni Ibargurenek eta Josu Nafarratek osatutakoak. Lehenengoek bi lagunendako afaria eroan zuten eta, bigarrenek, ardoa eta gazta.

• 18/98+ EPAIKETA SALATZEKO MOBILIZAZIOAK

M.B.

BILKURAK IZAN ZIREN ASKATASUNAK DEITUTA

Bergaran eta Arrasaten elkarretaratzeak egin zituzten eguenean. Arrasaten hainbat ikastetxe eta lantegiren aurrean egin zituzten elkarretaratzeok, goizean. Arratsaldean, berriz, PSOE alderdiaren egoitzaren aurrean. Bergarari dagokionez, arratsaldean egin zuten elkarretaratzea 40 bat lagunek, plazan. Jose Luis Elkoro ere hantxe zegoen. Asteon deklaratu du Elkorok eta Goienari esandakoaren arabera, "epaiketa psikologikoki gogorra da".

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

BEÑAT IRAZABAL

Urrian botatako Donostiako Ametsenea gaztetxearen hondarretan aurkeztu zuten. Han izan ziren ibarreko ordezkariak.

Gaztetxe eta Asanbladen gida kalean da dagoeneko

Euskal Herriko ia 200 Gaztetxe eta Asanbladaren ekimenak jasotzen ditu zapatuan Donostian aurkeztu zuten gidak

J. B.

Gaztesareak eta Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Koordinakundeak gaztetxe eta gazte asanbladen gida aurkeztu zuen zapatuan. Urrian bota zuten Donostiako Egia auzoko Ametsenea gaztetxearen hondarretan ezagutarazi zuten Euskal Herriko asanbladetako kideek. Gizarte mugimendu honen historiaren zati bat jasotzen da liburuxkan. Guztira 140 gaztetxe batzen ditu, tartean Debagoienekoak. Xirikak argitaratu du gida eta Durangoko azokan eskuratu ahal izango da.

Gaztetxe eta Gazte Asanbladek urtetan zehar egindako lana eta emaitzak jasotzen ditu gida berriak, hustutze eta jaiotza berriekin etengabe haziz eta murriztuz doan zerrenda. Honela, komunikazio tresna gisa aurkeztu zuten liburua, gaztetxeek elkar ezagutu eta harremanak sendotu aldera. Debagoienak ordezkaritza osoa dauka gidan. Ibarreko gaztetxe guztiak (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Elgetakoak) agertzeaz gain Asanbladak ere badatoz (Aramaio edo Antzuolakoa). Oñatiko Gaztetxea ere agertzen da, nahiz eta berriki eraitsi duten. Asanblada bakoitzak testua idatzi eta argazkia helarazi dio koordinakundeari eta elkarlan horren emaitza da gida hau.

Gaztetxe eta Asanbladek egindako lana gizartean ezagutarazteko idatzi dute gida

'GIZARTEAREN ONARPENA'

Beñat Irazabalek, Arrasateko Asanbladako kide eta aurkezpenean izan zenak, azaldu digunez "gizartearen errekonozimendua lortzea da helburua. Aurrerapausoa da Gaztetxe eta Asanbladek indarrak batu eta gizartearen aurrean egindako lana aurkezteko". Gidarekin batera aurki *Gaztetxe bira* eta *Gaztetxekide* izeneko sentsibilizazio kanpainak abiaraziko dituzte, uneotan eztabaida prozesuan dagoena. Gaztetxeen aldeko diskoa ere kaleratu berri dute.

Turismo bulegoek eskaintza berezia asteon

A.G.

Egunotako jai egunak kontuan izanda, ibarreko turismo bulegoek eskaintza bereziak egingo dituzte.

Oñatiren kasuan, unibertsitatean jarriko dute informazio puntua bisita gidatuetarako. Ordutegia izango da: abenduaren 3an, 4an, 6an, 8an eta 10ean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara; ordutegi horren barruan egingo dituzte bisita gidatuak. Bestalde, abenduaren 5ean, 7an eta 9an zabalik egongo da 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Egun horietan bi bisita gidatu baino ez dituzte egingo: 12:00etan eta 16:45ean. Azkenik, abenduaren 11n 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

BERGARAN ERE ZABALIK

Bergaran ere zabalik egongo da turismo bulegoa honako ordutegian: abenduaren 2an, 3an, 5ean, 7an, 9an eta 10ean, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Abenduaren 4an, 6an, 8an eta 11n, berriz, 11:30etik 14:30era egongo da zabalik. Esandako ordutegian bisita gidatuak egiteko aukera egongo da, doan.

ARTXIBOA

Domu Santuko zubian ere eskaintza berezia egin zuten.

Labur

Arrostaitz eta Lore Gazteak Reala ikustera joango dira bihar

Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeetako dantzari gaztetxoenek Realari bisita egingo diote bihar, Zubietara. Autobusak antolatu dituzte horretarako eta izena emateko Kajoi eta Basati tabernetara edo Anboto inmobiliariara jo behar da. Dantzari gazteek arratsaldea Igeldon emango dute.

2007ko udan irekiko dute Oñatiko Arrikrutzeko kobazuloa

Arrikrutzeko turismo proiektua 2007ko udan irekiko dutela iragarri du Turismo Agentziak. Aurretik, 2006an zehar, egokitze lanak egiten jarraituko dute eta horretarako 802.000 euroko aurrekontua aurreikusi dute. Dagoeneko egina dago kobaren sarrerako tunela eta barruko pasagunea egiten ari dira.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505 zenbakira
Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure homitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtzi) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATX01
Txus (La Polla) | TXUS
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real!! | REAL
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (sms1)
LAU1 LAU3
NUKLEAR LORA
SORGIN ARRANO

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

EHNE sindikatuak jaso zuen Via Campesinaren bitartez Hondurasen azaroaren 27an egin ziren hauteskundeetan nazioarteko ikuskatzaile legez joateko gonbita. Han izan da Agurtzane, Euskal Herritik joandako beste hamalau lagunekin batera. Hala ere, hiruk bakarrik lortu zuten ikuskatzaile baimena. Tegucigalpa hiriburuko J. Keenedy eskolan izatea egokitu zitzaion. "Harrituta ibili ginen; telebistan erakutsi egiten zuten botoa nori ematen zioten. Guri sekretua dela esan izan digute beti, baina naturaltasun osoz erakusten zuten hangoek".

AGURTZANE DIEZ DE URIBIDE | HONDURASKO HAUTESKUNDEETAN NAZIOARTEKO IKUSKATZAILEA

"Zalantzak dauzkat han egon ezean kontaketa zuzen egingo zuten"

M.D.

Agurtzanek hamar egin ditu Hondurasen; eguaztenean bueltatu zen handik.

Marijo Deogracias

Nork gonbidatuta joan zara Honduraseko hauteskundeetara?

Unificacion Democraticak (UD), ezkerreko alderdi politiko bakarra, eskatutako ikuskatzaile taldean joan ginen EHNEtik hamalau lagun. Rafael Alegria hautagaia Via Campesinako kide da eta EHNE ere bai. Hauteskundeak garbi ez zirela egingo susmoa zuen berak eta hark eskatuta joan ginen. Hala ere, alderdi bakoitzak (bost guztira) hogeina ikuskatzaileri eman diete baimena. Guatemala eta El Salvadorreko ikuskatzaileekin izan gara gu.

Zein izan da zehazki zuen lana?

Ikuskatzaile lana hauteskunde egunera mugatzen da. Bezperan akreditazioak jaso genituen eta hauteskunde egunean goizeko 5etarako martxa. Hauteslekuak goizeko 6etan zabaltzen ziren. Goiz partean UD-koek ustez arazo gehien emango zituzten mahaietatik zehar eraman gintuzten eta arratsaldeko 4etan hauteslekuak itxi egiten zirenez, mahaietara joatea komeni zenez, hauteslekuetan zehar banatu gintuzten.

Zu egon zinen mahaian arazorik egon zen?

Hango hauteslekuetan egoten direnak ez dira zozketa bidez aukeratzen; alderdiek jartzen dituzte eta UD-koek ez daukate hainbeste jende mahai guztietan egoteko hortaz, gurean –J. Kennedy eskolan– bakar-bakarrik bina nazionalista eta liberal egon ziren. Zalantzak dauzkat, gu han izan ez bagina, kontaketa zuzen egingo zatekeen. Oso gazteak ziren guztiak –Honduraseko bataz besteko adina 32 urtekoa da–. 16:30ean hasi ginen zenbaketarekin eta goizeko 3etan amaitu genuen. Tartean entzuteko moduko komentarioak entzun genituen. Gu geu neutroak ginen, inork ez zekien nork gonbidatuta ginen han (alderdi guztiek zituzten nazioarteko ikuskatzaileak) eta sinesgarritasuna izateko saiatu ere egin ginen inorekin ez lotzen. Bene-benetan diotsut zalantzak dauzkadala han egon ezean kontaketa zuzena egingo zuten.

Kontaketa bera ere ez da hemen legez egiten?

Hiru papeleta ziren: lehendakaritzarako (5 alderdi politiko ziren eta bakoitzeko bi aukera), alkatetzarako (5 alderdi eta bina aukera) eta diputatuak aukeratzeko (5 alderdi eta 23na aukera). Lehendakari eta alkatetzarako hautagaiari ematen zitzaion botoa, baina diputatuen kasuan, bi aukera zeuden: alderdiko 23 izenei edo bost alderdietako izen guztien artean aukera egin. Nire mahaian 236 boto egon ziren eta den-denek gurutzatutako aukeraren alde egin zuten.

Bazenekiten nola izango zen bozketa eta kontaketa?

Aurretik saiatu ginen prozesua nola egiten duten jakiten. Egia esateko UD-koak oso lanpetuta ibili ziren eta gure kontura geratu zen informazioa eskatzea. Lehenengo aldia zen horrelako zerbait egiten genuela eta aurrez ezagutzea komeni zitzaigun. Gainera, prozesua oso luzea izan zen: 24 orduko eguna izan zen guretzako. Hala ere, haiek baino hobeto eutsi genion; Karibeko erritmoa daukate han!

Zerk harritu zaitu gehien hauteskundeetatik?

Salaketa asko egon dira, botoa ematera joan eta jada izena erabilita egotea, boto salerosketak… Ustelkeria itzela da. Presio handia egiten dute talde nagusienek. Nazionalistek eta liberalek 110 urte daramate boterean eta presio itzela sumatzen zen. Polizia eta militarren kontrola ere itzela izan zen eta bideetako poliziak ere asko ziren. Harritzekoa izan zen telebistan botoa nori ematen zioten erakusten zutela ikustea. Democracia Cristianako hautagaiak esaterako, 23 diputatuak bere alderdikoak aukeratu beharrean nazionalisten zerrendako bi aukeratu zituen eta hori telebistak hartu egin zuen, harrigarria! Botoa sekretua dela esan izan digute beti, baina han naturaltasun osoz erakusten eta esaten dute bere botoa zein den.

Trabarik izan duzue?

Ez, batere ez. Gainera nazioarteko ikuskatzaileak ginela ikusita laguntzarik ez, baina trabarik ere ez ziguten jarri.

Hauteskundeetako emaitzak noizko jakingo dira?

Gu handik atera ginenean %60 bat zenbatuta zeukaten, liberalen alde. Ordurako, jada, nazionalistak hasiak ziren esaten zenbaketa ez zutela onartzen eta beste hauteskunde batzuk egin beharko zirela. UD-koek orain arte 8 diputatu izan dituzte eta nahiko baikorrak ziren: 15 bat izatea espero dute. Hala ere, informazio oso gutxi ematen zuten eta abenduaren 15era bitarte ez da jakingo emaitzarik.

Hamar egun egin dituzte Hondurasen. Zer ikusi duzue?

Landa eremuetan mugitu gara gehien bat. Iparraldera ezin izan gara joan gure aurretik urakana pasatu zelako eta kalte handiak eragin zituelako. Osterantzean, landa eremuetan bizi direnek gosea ez dute pasatzen, indabak (frejole) eta artoa badituzte, baina lehen mailako premia larriak dituzte: Honduras osoan ez dago edateko urik; Tegucigalpa hiria, Mitch urakanaren ostetik oraindik arrasatuta dago… Landaguneetan emakumeak eta umeak bakarrik zeuden. Gizonezkoak *a los estados* joaten dira, etorkin legez, eta han geratzen direnek alkoholarekin arazo larriak dituzte. Emakumeak eta umeak baino ez dira ikusten alde guztietatik.

Beldurra ere pasatu dugu. Mareek aurreko astean ekintza bat burutu zuten eta beldur hori bazegoen. Hala ere, sekula ez gaituzte bakarrik utzi. Esperientzia aberasgarria, baina oso gogorra izan da.

"Goizeko 6etan zabaldu zituzten hauteslekuak eta arratsaldeko 4etan itxi"

"Alderdiko 23 izenen edo bost alderdietako izenen artean aukera egin zitekeen"

"Nazionalistek eta liberalek 110 urte daramate boterean, eta presio itzela sumatzen zen"

"Emakumeak eta umeak bakarrik daude; gizonak *a los estados* joaten dira"

Albiste izango da

DEBAGOIENA | SAN PRUDENTZION LAGA BEHAR DIRA

Gurutze Gorriak behartsuendako jostailuak batzeko kanpaina hasi du

Gabonen atarian, San Prudentzioko Gurutze Gorriak jostailuak batzeko kanpaina jarri du abian. Helburua da familia behartsuenen artean banatzea jostailuok.

Hori horrela, herritarrei dei egiten diete etxean erabiltzeke eta egoera onean dituzten jostailuak Gurutze Gorrira eramateko. Jostailuok lagatzeko ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera 19:00etatik 21:00etara eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Bestalde, jakitera eman dute, ordutegitik kanpora ere laga ahal izango direla jostailuak inor egon ez arren.

ARRASATE | LEHENENGO FASEKO LANETAN DIHARDUTE

Kirolgune berriaren maketa ikusgai jarri dute Musakolan

Musakolako kirolgune berriaren gaineko maketa ikusgai dago egubakoitzetik Musakolako kiroldegian. Lehenengo fasean baino ez daude lanok. Oraingoz Mojategi gunean mendiari zatia kentzen dihardute, baina etorkizuneko kiroldegia nolakoa izango den jakin nahi duenak Musakolan jarritako maketan ikusi ahal izango du. Lanen lehenengo fase horretan 80.000 metro kubiko lur kenduko dute eta aurrekontua zazpi milioi eta erdi eurotik gorakoa da. Lanok aurreikusi bezala bukatuz gero, bigarren fasea –instalakuntza eraikitzea– datorren urteko ekainean hasiko da. Oraindik ez dituzte bigarren faseko lanak esleitu, baina lehenengoa bukatu aurretik lehiaketara aterako dituzte.

DEBAGOIENA | BERGARAN ETA ARRASATEN

Euskal curriculumaren aldeko eguna deitu dute bihar, martitzena

Debagoieneko Ikasle Abertzaleak taldeak, Euskal Herriak Bere Eskolak eta LAB sindikatuak deitu dute Euskal Curriculumaren Aldeko Eguna. Bihar, martitzena izango da eta ibarreko bi erritan antolatu dituzte ekiladiak, Bergaran eta Arrasaten, hain justu. Bietan herri eskolen eta euskal curriculumaren gaineko eztabaidak egongo dira, 10:00etatik aurrera. Eskolei dagokienez, Angiolillo nor izan zen azalduko du Jesus Mari Garitanok, Bergaran, eta Arrasaten, hezkuntzaren erronken gainean jardungo du Marije Fullaondok.

Eskoriatzako HUHEZI fakultateari dagokionez, egutegi propioa egin eta irakasle, ikasle eta langileek lanegun normala izango dute, Konstituzio Eguna kontuan hartu barik.

DURANGO | ABENDUAREN 8AN ETA 9AN, 17:00ETAN

'AHTri ez eta kito' leloarekin elkarretaratzea egingo dute

Eguenean, abenduak 8, AHTren kontrako manifestazioa deitu dute Durangon. *AHTri ez eta kito* leloarekin egingo da elkarretaratzea eta Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka paretik, Landakogunetik, aterako da arratsaldeko 5etan. AHT Gelditu! Elkarlanean plataformak deitu du manifestazioa, Durangaldeko gaztetxeek lagunduta.

Durangoko Azokara batzen den jendetza aprobetxatuta hurrengo egunean ere *Espetxeak apurtu* leloarekin egingo da elkarretaratzea Durangon, azokaren aurrealdean, 17:00etan.

ARAMAIO | 09:00ETATIK 14:00ETARA

Gaur eta egubakoitzean egongo da zabalik udaletxea asteon

Datorren astearen erdialdean bi jaiegun daudenez, Aramaioko Udaletik zera jakinarazi digute: Udala zabalik izango dela gaur, astelehenena, eta egubakoitzean. Hortaz, martitzenean, eguaztenean eta eguenean itxita egongo da. Zabalik egongo den bi egun horietan goizeko ordutegia izango du: 09:00etatik 14:00ak bitartean.

Bestalde, Arabako Odol Bankutik dei egin dute. Hala, aramaioarrek datorren eguaztenean, hilak 7, dute odola ematera joateko hitzordua. Ordutegia betikoa izango da: 16:30etik 20:00ak arte, anbulatorioan.

Hitzorduak

SAN NIKOLASEKO BOLOA EGINGO DUTE BIHAR, MARTITZENA, ARRASATEN | **Gipuzkoako umeei San Nikolasek ekartzen zizkien opariak sasoi baten**

San Nikolasen omenezko boloa izango da bihar, martitzena, Arrasaten: urtero bezala, udaletxeko balkoitik gozokiak, fruitu lehorrak, txanponak... botako dituzte ume eta gaztetxoendako. Lehenengo boloa 12:00etan izango da eta bigarrena, 12:30ean.

San Nikolas eguna Arrasatek bakarrik ospatzen du Debagoienean. Gipuzkoako herri askotan, baina, jai handia izan da; hala, Olentzero eta Erregeen tradizioa hasi aurretik, San Nikolas izaten zen umeei opariak ekartzen zizkiena, Europako Iparraldean oraindik baden moduan.

ARETXABALETA |

• Presoendako produktuak batzen dihardute

Presoei bidaltzeko produktuak batzen dihardu parrokiak. Abenduaren 18ra bitartean egingo dute hori. Honakoak behar dituzte: plastikozko katiluak, azpiko arropa, galtzerdiak, telefonorako txartelak; haginetako pasta eta eskuila; kartazalak eta seiluak; bainurako xaboia eta desodorantea; paperezko mukizapiak, azazkalak mozteko tresna, pilak, eta turroi biguna. Produktuok Caritasek banatuko ditu.

ARRASATE |

• Euskararen inguruko ekintzak daude Arizmendin

Arizmendi ikastolak gaur, astelehena, ospatuko du Euskararen Eguna. Honako ekintzak izango dira: euskararen nazioartekotasunaren gaineko pregoia entzungo dute ikasle guztiek; eta, egun osoan, jolasak eta jaialdiak izango dira.

• 1955ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

1955ean jaiotako arrasatearrek batera bazkalduko dute abenduaren 17an Sara jatetxean. Interesa dutenek 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako honako kontu korrontean: 3035 0047 1604 7106 6211. Mugaeguna abenduaren 12a da, astelehena.

• Uribarriko erretiratuak Donostiara joango dira

Uribarriko erretiratuen elkarteak Donostiara irteera antolatu du hilaren 21erako. Interesa dutenek lehenbailehen eman behar dute izena. Hilaren 15ean zozketa egingo dute, 17:00etan.

BERGARA |

• Eguneroko euskara hobetzeko ikastaroa dago

Gehixago eta Hobeto programaren barne, Udal Euskara Zerbitzuak, Udal Euskaltegiak eta herriko ikastetxeek euskara maila hobetzeko helduendako ikastaroak antolatu dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 91 31 telefono zenbakira.

• Alargunen Egoitza elkarteak bazkaria egingo du

Alargunen Egoitza elkarteak urteko bazkaria egingo du abenduaren 8an, eguena, Sirimiri jatetxean. Bazkide guztiak daude parte hartzera deituta. Izena eman nahi dutenek elkartearen egoitzara joatea besterik ez dute.

• Euskarazko jolas, kantu eta ipuinak ikasteko tailerra

Euskarazko jolas, kantu eta ipuinak ikasteko 16 orduko tailerra antolatu du Udal Euskara Batzordeak. Astelehen eta eguenetan, 15:00-16:30 edo 18:30-20:00, eta zapatuetan, 10:00-12:00, izango dira eskolak. Abenduaren 15era bitartean dago izena emateko aukera udaletxean.

• 1982an jaiotakoek batera afalduko dute hilaren 17an

1982an jaiotakoek afaria egingo dute abenduaren 17an. Izena emateko azken eguna abenduaren 14a da. 25 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0009 1 9 009 0 07582 7.

• Etorkinendako euskara ikastaro bereziak daude

Euskara ikasi nahi duten etorkinendako ikastaroak antolatu dituzte Bergarako Udalak eta Udal Euskaltegiak, eta horietan izena emateko epea etzi, eguaztena, bukatzen da. Izena eman aurretik, 30 euro sartu behar dira Kutxako kontu korronte zenbaki baten. Matrikula osoa 61,80 eurokoa da. 16 urtetik gorakoendako ikastaroa da, astean lau ordukoa. Argibideetarako, deitu honako telefonoetara: 943 77 91 31 (Udala) edo 943 76 44 53 (euskaltegia).

DEBAGOIENA |

• Sahararen aldeko egutegiak saltzen ditu Nubi elkarteak

Sahararen aldeko egutegiak saltzen ditu Nubi elkarteak 10 eurotan. Erosteko, deitu honako telefonoetara: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.

BERANGO

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles Kabía Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70

Iritziak

Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Oinezkoendako bidea

Kexu baten berri ematera etorri dira erredakziora Bergarako bi neskato. Simon Arrieta plazatik behera egin eta Bideberra hartzeko errepidea gurutzatu behar da. "Auto ugari dabil errepide horretan eta ez dago zebra biderik", kexatu dira. Hala, "Udalari eskatzen diogu margotu dezatela zebra bidea", gehitu dute bi neskatoek.

• Estolda-zulo zulatua

Arrasatetik iritsi zaigu hurrengo txistua. Antza denez, azkeneko euri jasek traba bat baino gehiago eragin diote gure irakurleari: "Arrasateko Maala kalean (Grupo San Juanen ondoan errekaren kontra dauden Etxe Txikien inguruan) aspalditxo dago estolda bat apurtuta. Euria egiten duen bakoitzean gainezka egiten du eta itzelezko putzua sortzen da kale horretan. Autoa hartzera joan nintzen aurreko astean eta ia-ia auto barruraino iristen zen ura. Hiru bat urte badira estolda horretan gauza bera gertatzen dela, euria egiten duen bakoitzean. Hortaz, ondo legoke, herriko kale txikietatik ere udaltzaingoa pasatzea lantzean behin".

• Lur-jauzia noiz arte?

GI-2630 errepidearen gaineko beste txistu bat iritsi zaigu: "Oñatiko saihesbidean bada herriko kiroldegiaren inguruan lur-jauzia izan zen leku bat. Han badira oraindik orain kono batzuk lur-jauzia dagoela erakusten dutenak. Arazoa ez da hori; arazoa da urte erdi badela hori horrela dagoela eta egunero dabilenarendako luze egiten ari dela errepide horretara eroritako lurra horrela ikustea, bai eta konoak traban izatea ere egunero-egunero".

Sarean harrapatuta

Debagoieneko liburu denden etorkizuna

Arrasateko Hire liburu denda erreferentzia izan da herrian eta ibarrean. 30 urte baino gehiago egin ditu liburuak eta eskola materiala saltzen, besteak beste. Bada, azaroaren 30ean itxi egin zuten. Ez da ixten den lehenengo liburu-denda, eta horrek zer pentsatua eman die *Goiena.net*-eko irakurleei. Galdera hau jarri dute webgunean: etorkizunik badute liburu-dendek? Hemen dituzue erantzun batzuk.

BIZITZA HIRIBURUETARA MUGATZEN ARI GARA

Ez dut bakarrik liburu-+denden arazoa dela ikusten, askoz ere arazo larriagoa dela ikusten dut. Herriak lo egiteko lekuak bihurtzen ari dira eta era honetan denon bizitza hiriburuetara edota merkatal zentroetara mugatzen hasi da.

Dendak ixten hasiak dira, zinea ere itxi da herriren batean, kafetegiak, tabernak, gaztetxeak... Pena ematen dit, baina oso urte gutxian herriak hiltzera doaz eta gure errua izango da. Era berean, udalek ere ez dute asko laguntzen.

Iagoba / www.goiena.net

LIBURU-DENDAK ERALDATU EGIN DIRA

Uste dut apur bat alarmistak garela gai honekin. Egia da denda eta zerbitzu batzuk ixten direla, baina beste berri batzuk irekitzen dira (eta ez bakarrik bazar txinatarrak...). Hireren kasuan, erretiroagatik izan da. Ez daukat daturik, baina ez dut uste negozioa gaizki joango zenik. Bestela argi dago, liburu dendak eta, FNAC estilokoak ez badira, ez dutela etorkizun handirik, eta megadendak hiriburuetan bakarrik jartzen dira. Denda batzuk hiltzen dira, beste batzuk jaio eta beste batzuk eraldatu egiten dira... Bizitza bera bezalako zikloa dute.

Debagoienak hutsuneak ditu denda, jatetxe eta zerbitzuen aldetik, baina alarmismo barik. Inguru honetan mentalitate industriala izan da nagusi eta beti egon da gogo gutxi horrelako negozioak martxan jartzeko.

Zalakain / www.goiena.net

BILBORA JOAN BEHARKO LIBURUA EROSTERA

Hire liburu-denda ez dute itxi negozioa gaizki zihoalako, baina oso ondo joango balitz honezkero hartu zuen norbaitek negozioa, ez duzu uste? Azken urteotan liburu-denda asko itxi dira Arrasaten eta Hire izan da azkena. Beste herri batzutan ere itxi behar izan dute liburu-denda askok, bezerorik ez zutela-eta

Egia da erosotasunak eraginda-edo nahiago dugula megadendan, Fnacen edo Eroskin erostea liburuak. Azken finean, liburu-denda txikietan liburu gutxiago aurkituko dituzu-eta.

Horrela jarraituz gero laster Donostiaraino edo Bilboraino joan beharko dugu liburu bat erostera. Jendeak ez duela irakurtzen kexatzen gara (ez dut uste hori egia denik). Horrela ez dira irakurleak irabaziko, liburu denda handien poltsikoak bete besterik ez ditugu egingo.

Lolo / www.goiena.net

DITUGUN LIBURUTEGIAK HOBETU BEHAR DIRA

Betiko liburu dendak ixten dabiltza, bai, egia da. Baina, hainbeste erosi beharrean joan gaitezke liburutegietara. Orain, gainera, zure herriko txartelarekin EAEko liburutegi guztietan hartu zenezake libururen bat. Liburutegiak hobetu beharko genituzke eta liburua erosi nahi duenak ahal duen lekuan eros dezala.

Aio / www.goiena.net

www.goiena.net

Liburu-denda asko itxi dituzte azkenaldian. Badute etorkizunik liburu-dendek?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

Halaxe erantzun digute

Tabakoaren kontrako legea lantoki eta tabernetan betearaziko dela uste duzu

?

SAMU GORROTXATEGI |
ESPALOIA KAFE ANTZOKIA

Guk aparteko lokala prestatuko dugu erretzaileendako.

Kafe Antzokiei eskatzen zaien guztia betetzen dugu, eta Espaloia Kafe Antzokian zorrotz beteko dugu erretzearekikoa ere kartelak-eta jarriz. Hori bai, ez dugu asmorik polizia lanak egiten hasteko.

UNAI ASURMENDI |
KIROL TEKNIKARIA

Ez, uste dut tabakoaren kontrako legea ez dela betearaziko. Eta arrazoia oso sinplea da: nahia eta ahala ezin direlako nahastu.

Zeinek hartuko du erretzaile arau-hausleak zigortzeko ardura?

Eta, beste galdera bat egingo nuke: Debekatzea/zigortzea al da bidea?

KOLDO GURIDI |
GEYSER-EKO PERTSONAL BURUA

Derrigorrezkoa denez, eta 10.000 euroko isunak aurreikusten direnez, betearaziko da. Nahi barik tabakoa kontsumitzen dutenak babesteko neurriak, eta ez erretzaileen kontrakoak, hartu behar dira. Tabako bako lantokiak dirua eta denbora aurrezten lagundu behar du.

EDU MENDIBIL |
KAZETARIA

Lantokietan bai, eta jatetxeetan ere poliki-poliki hasiko dira horretara ohitzen, beste herrialde batzuetan gertatu den bezala. Gauez, taberna, diskoteka eta halakoetan zailagoa ikusten dut legea betearaztea. Ez dut imajinatzen, hainbat tokitan, kerik gabeko kontzerturik edo parrandarik.

Egunkarietako harribitxiak

TELEBISTA MODU KRITIKOAN IKUSI

Kataluniako LH eta DBHko ikasleendako gidaliburua argitaratu du Kataluniako Ikus-entzunezko Kontseiluak (*Com veure la TV*), telebista modu kritikoan ikusten ikas dezaten. Katalunian egindako azterketa baten arabera, 4-12 urteko umeek urtean 900 ordu egiten dituzte telebistaren aurrean; eskolan, 960.

'Berria'
2005-12-04

EUSKAL ANDORRA

Alkoholaren, gasolinaren eta bereziki tabakoaren salmenta negozio itzela bilakatu da Behobian. Mugaz handiko jende ugari joaten da hara prezioak merkeagoak direlako. Baina Frantziak lege berria onartu du: partikular batek ezingo ditu hamar tabako kaxa baino gehiago eroan atzerritik. Horren gaineko erreportajea egin zuten atzo Gipuzkoako egunkari berriak igandeko *de domingo* gehigarri berezian.

Kontrabandoa itzuliko da? galderari erantzun nahian hainbat datu ematen ziren erreportajean: Behobiako estankoetan, bataz besteko erosketa 200 eurotik gorakoa izaten dela, eta 100-250 zigarro kartoiak eskatzen dituzten erosleak ere badirela. Aldiz, mugaren beste aldean, hasiak dira atzerrian tabakoa erosteko mugatzeko aukerari buruz berbetan.

'Noticias de Gipuzkoa'
2005-12-04

Tira, tira...



Mariano Rajoy arin zaurituta helikoptero istripuan.

Tasio 'Gara' | 2005-XII-04

Zorroztailea

M&M

Bere alderdiaren elkarretaratzea gidatuko du gaur Mariano Rajoyk Puerta del Solen. Manifestua irakurriko du Konstituzioaren alde eta adoste konstituzionalaz. Ez du Kataluniako estatutuaren proiektua aipatuko.

'El País' | 2005-12-03

Jota Jota Arrieta

Manifestazioa Madrilen. Tira bada, ez da hain arraroa. Koño, manifestariak PPkoak dira eta. Pankarta eta guzti. Horrek badu bai bere grazia, izan ere ikustekoa zen zein tonurekin erabiltzen zuen Jose Mari I.ak "pancarteros" hitza duela denbora gutxi. Alabaina, egia da hori bota zuenetik hona denbora asko pasatu ez den arren, ez dela hau euren lehen manifestazioa eta esango nuke manifestazioei gustua hartzen hasiak direla.

Zer aldarrikatzen dute oraingoan? Aurrez aurre, Konstituzioaren alde datoz; zeharka eta ahapeka (?) Estatut-aren kontra, Españaren erabateko zatiketaren kontra. Horrek ere badu bere grazia. Aurreko baten anakronia eta ukroniarekin hitz-jokoan ibili nintzen zutabe honetan. Badirudi PPkoek ere gustuko dutela (hitz-jokoa, ez zutabea, nahastu barik tovarik). Izan ere, duela 27 urte eurak izan ziren partidu politiko nagusien artean Konstituzioaren aurka azaldu ziren bakarrak. Gehiegikeria zelako, noski. Orain berriz, *earki gatxik* esan eta planto egin nahi dute.

Atzera begiratzearen puruz begiak kokotean dauzkatela dirudi. Behin eta berriro hanka-sartze berberak errepikatzea ere... Daukaten curriculumarekin harrigarria da gero, zertxobait ez ikastea. Begira bestela Konstituzioarenaz gain zer nolako predikuak bota zituzten abortoaren eta dibortzioaren legeekin. Zer egin dute gero? Estatistikei gorakada galanta eman. Zenbat apustu urte asko pasa baino lehen PP Estatut-aren oso alde eta autodeterminazioaren kontra azalduko dela?

"Duela 27 urte eurak izan ziren partidu politiko nagusien artean Konstituzioaren aurka azaldu ziren bakarrak"

"Zenbat apustu urte asko pasa baino lehen PP Estatut-aren alde eta autodeterminazioaren kontra azalduko dela?"

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

NAFARRA, EUSKALDUNA ETA...

Ikuspuntu ez erlijiosotik, Frantzisko Jatsuk herria eta hizkuntza batzen ditu. Noski, pertsona hori ez da atzo Xabierren eta 2006. urtean nonahi Miguel Sanzek goraipatuko duen santu nafar eta unibertsala. Izan ere, bai Xabierren garaian, bai orain, Europan nazio gisa aritzeko eskubidea duen herria da Nafarroa, hots, Euskal Herria.

Editoriala
2005-12-04

'Berria'

ISIL ZAITEZTE

Ez da erraza epaimahaiaren jokabidea ulertzen, ezta beraien ikuspegian jartzen saiatuta ere. Azkenean, auzipetuen ahotik *politika* hitza entzun orduko gaixotu egiten den epaimahaiburua bera ari da ematen epaiketari kutsu ezin politikoagoa: epaiketa politikoa dela esaten ez uzte hori, azalpenak eman nahi dituenari hitza moztea...

Imanol Murua Uria
2005-12-04

'El Pais'

HERIOTZA ESTATISTIKA

Ameriketako Estatu Batuetan heriotza zigorra indarrean egoteak balio diezaieke aitzaki moduan estatu ez demokratikoei eurek ere indarrean mantentzeko. Ezin da ulertu AEB den superpotentziak basakeria hondar hori nola izan dezakeen komunean Iranekin, Saudi Arabiarekin edo Singapurrekin.

Editoriala
2005-12-04

'El Mundo'

EKINTZA EREDUGARRIA

Puerta del Solen batu ziren milaka lagunek ez zuten Kataluniaren kontrako irainik jaurti, ezta bandera aurrekonstituzionalik edo errepublikarrik erakutsi ere. Hori bai, jende kopuruak deitzaileen aurreikuspenak gainditu izanak erakusten du zein zabalduta dagoen espainiarren artean balore konstituzionalak arriskuan daudelako sentimendua.

Editoriala
2005-12-04

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Ford Mugarrik bigarren faserako ezinbestekoa zuen garaipena lortu du | 14
• Mugarri Alkesako mutilek garaipena lortu dute Gasteizen | 15

Iban Velasco. Orbearekin fitxatu du arrasatearrak. Berarekin hitz egin dugu etorkizunaz | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

UDA
5-0
HONDARRIBIA

UDA | Eriz, Sanchez, Erostarbe, Unamuno, Armendariz, Arenaza, Uribetxebarria, Arrieta (Nuñez, 63. min.), Erik (Arriaga, 55. min.), Rodriguez (Joseba, 67. min.) eta Espinosa (Alonso, 59. min.).

Hondarribia | Amiano, Sanchez, Berasaluze (Oiartzun, 63. min.), Santamaria, Rodriguez, Navarro, Muñoz, Nogueira (Balda, 70. min.), Francisco (Elgorriaga, 53. min.), Elizalde (Amunarriz, 53. min.) eta Elberdin (I. Gonzalez, 42. min.).

Golak: 1-0 Erikok (12. min.). 2-0 Erikok (32. min.). 3-0 Iñakik (38. min.). 4-0 Iñakik (40. min.). 5-0 Igorrek (70. min.).

Epailea: Andoni Labaka jauna. Ondo aritu zen. Epaitzeko partidu lasaia izan zen.

Bestelakoak: eguraldi txarra zegoen eta ikusle gutxi bildu zen Ibarran. Etxeko taldeak azkar utzi zuen partidua erabakita eta jendeak azkar egin zuen ihes futbol zelaitik.

Bikain

UDAren bigarren gola
Bost gol egin zituzten Aretxabaletakoek. Bigarrena izan zen politena, atzetik hasi eta talde osoak parte hartu zuelako. Jokaldi ikusgarria izan zen eta gainera gola.

Kaskar

Hondarribiaren atzealdea
Kostaldekoek bost gol jaso zituzten Aretxabaletan. Ibarran argi gelditu zen atzealdean nahiko makal dabilen taldea dela Hondarribia. Bi partidu bakarrik irabazi dituzte.

Esandakoak

"Azkenaldiko partiduetan ez dugu garaipenik lortzerik izan eta gaur bezalako emaitzak gustura hartzen dira beti".

OXEL EROSTARBE | UDAKO JOKALARIA

"Taldea ondo ikusten dugu eta ez diogu ezeri ukorik egiten. Aukeran, talde txikiegia daukagu lesioak direla eta".

JOKIN ANTXIA | UDAKO LEHENDAKARIA

AITOR LIZARRALDE

Erik Garcia izan zen Aretxabaletako taldearen lehenengo bi golen egilea.

FUTBOLA I ASPALDIKO PARTIDURIK LASAIENA JOKATU ZUEN UDAK ATZO, DOMEKA

Hondarribiko taldeak zailtasun gutxi jarri zituen

Neurketaren 12. minutuan egin zuen UDAk partiduko lehen gola. Atsedenaldirako markagailuak 4-0ko emaitza jasotzen zuen Ibarran

Larraitz Zeberio

Neurketaren lehen zatian erabaki zuen norgehiagoka Aretxabaletako taldeak. "Azkar egin dugu lehen gola eta horrek lasaitasuna ematen du", azaldu zigun partida amaieran UDAko jokalari Oxel Erostarbek.

Zailtasun gutxi jarri zituen Hondarribiko taldeak Ibarran eta UDAk aukerak bata bestearen atzetik sortu zituen. Lehen gola Erikok egin zuen 12. minutuan. Hondarribiko defentsa bati baloia kendu eta atezainaren akats batean sareetara bidali zuen zuzenean. Bigarren tantoa ere Erikorena izan zen, baina talde osoaren meritua. Jokaldi oso polita izan zen.

Neurketa ia erabakita zeukan etxeko taldeak. Hondarribiko taldeak aukera gutxi sortu zituen eta jaurtiketa gutxi egin zituen atera. Baloia kontrolatzea ere zaila egiten zitzaion askotan. UDAk sailkapeneko azkenaurreko taldea zuen aurrez aurre eta nabaritu egin zen.

Hirugarren gola Iñakik gauzatu zuen. Atsedenaldira joan aurretik laugarren tantoa egin zuen UDAk. Alboko sake baten ondotik baloia sareetara bidali zuen Aretxabaletako jokalariak.

UDA baloiaren jabe izan zen neurketa osoan eta aukera ugari sortu zituen

Bigarren zatia makalagoa izan zen. Etxeko taldeak lau goleko aldea zuen

Hondarribiak egun txarra izan zuen domekan. Xabier Elberdin jokalaria, gainera, anbulantzian eraman behar izan zuten eskumako belauneko lokailu gurutzatuen haustura eginda.

UDA ETORKIZUNERA BEGIRA

Aretxabaletako taldea ondo sailkatuta dago preferente mailako taulan. "Guk ez diogu ezeri uko egiten", azaldu digu Jokin Antxia lehendakariak. "Aukeran, jokalari kopuru txikia dugu, asko lesionatuta daudelako".

Oxel Erostarbe jokalariaren hitzetan "goizegi da gora begira jartzeko. Partidu guztiak borrokatu behar ditugu eta bananbanan planteatu. Hamar jardunaldiren faltan berdin jarraitzen badugu, orduan planteatuko ditugu helburu handiagoak".

PREFERENTE MAILA

AITOR LIZARRALDE

Garaipen honekin, Aloñak sailkapeneko goiko postuetan jarraitzen du 29 punturekin.

Asko sufritutako garaipena eskuratu zuen Aloñak

ALOÑA MENDI
3-2
ORDIZIA

Aloña Mendi | Idigoras II, Lopez, Losada (Henry, 84. min.), Maiztegi (Sanchez, 86. min.), Arregi I (Aramendi, 68. min.), Olalde, Camino, Igartua, Garai, Arregi II (Roberto, 62. min.) eta Zubia.

Ordizia | De Marcos, Koldo (Clemente, 45. min.), Kaze, Ano, Lekuona, Garmendia, Mendez (Alvarez, 78. min.), Oiarbide, Irastorza, Tello (Odriozola, 45. min.) eta Intsausti (Etxeberria, 68. min.).

Golak: 1-0 Arregi I (4. min.), 2-0 Camino (25. min.), 2-1 Odriozola (54. min.), 2-2 Oiarbide (65. min.), 3-2 Roberto (89. min.)

Epailea: Zubiaurre jauna. Ordiziako 3 jokalari kaleratu zituen.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak azken momentura arte sufritu zuen Ordiziaren aurka. Partidua polemika handikoa izan zen, epaileak Ordiziako 3 jokalari kaleratu zituen-eta. Norgehiagokaren 4. minutuan, epaileak Aloñaren aldeko penaltia adierazi zuen. Unai Arregik jaurti zuen eta Ordiziako atezainak geratzea lortu zuen arren, Aloñako aurrelaria bizi ibili zen eta alderatzean baloia sareetan sartu zuen.

Lehenengo zatian Aloñak agindu zuen zelaian. Hala ere, zelaiaren egoera zela-eta, baloia ondo jokatzea zaila izan zen domekan Azkoagainen. Baloi luzeak jaurti zituzten bi taldeek.

EPAILEA PROTAGONISTA

Partiduko 25. minutuan, Xabi Caminok Aloñaren bigarren gola egin zuen. Hurrengo jokaldian, epaileak Ordiziako jokalari bat kaleratu zuen, bi txartel hori erakutsiz.

Aloña jokalari bat gehiagorekin jokatzen egon arren, bigarren zatian ez zen partidua aurrera ateratzeko gai izan. Ordizia arrisku handiarekin iristen ari zen Aloñaren atera eta azkenean egindako lanaren ordaina jaso zuten; partidua berdintzea lortu zuten. Azken minutuetan, tentsio handiko uneak bizi izan ziren. Epaileak Ordiziako 2 jokalari kaleratu zituen. Aloñak bere nagusitasuna aprobetxatuz, garaipenaren gola egin zuen Robertoren bidez.

Azken unean eta penaltiz irabazi zuen Beriok

MONDRA
2-3
BERIO

A.G.

Partidu gogorra jokatu zuten zapatu arratsaldean Atxabalpen, baina bukaerako istiluak izan ziren zalantzarik gabe protagonista. Mondra gehiago izan zen lehen zatian. Ekainek egin zuen lehen gola, baina Beriok sei minutu beranduago berdindu zuen. Atsedenaldira 2-1 emaitzarekin iritsi ziren, Iker Lopezek sartu zuen-eta lehen zatiko azken gola. Bigarren zatian Berio hobeto aritu zen eta aukera asko sortu zituen. 2-2koa 56. minutuan heldu zen.

Partidua emaitza honekin amaituko zela zirudienean epaileak penaltia adierazi zuen Berioren alde. Istiluak izan ziren orduan nagusi eta epaileak paperak galdu zituen. Hirugarren gola egin zuen kanpoko taldeak.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Mondra-Berio	2-3
Allerru-Irun 1902	2-1
Zestoa-Anaitasuna	1-1
UDA-Hondarribia	5-0
Touring-Trintxerpe	2-3
Pasaia-Hernani	2-1
Orioko-Zarautz	0-1
Aloña Mendi-Ordizia	3-2
Idiazabal-Mutriku	2-1
Real Union-Beti Gazte	4-0

HURRENGOAK

Berio-Real Union
Irun 1902-Mondra
Anaitasuna-Allerru
Hondarribia-Zestoa
Trintxerpe-Aretxabaleta
Hernani-Touring
Zarautz-Pasaia
Ordizia-Orioko
Mutriku-Aloña Mendi
Beti Gazte-Idiazabal

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Real Union**	**36**	14	12	2	0	33	12
2.**Aloña Mendi**	**29**	15	9	4	2	29	20
3.**Pasaia**	**29**	15	7	0	8	27	16
4.**Ordizia**	**29**	15	9	4	2	22	10
5.**UDA**	**26**	15	7	5	3	29	15
6.**Mutriku**	**25**	15	8	6	1	24	22
7.**Trintxerpe**	**25**	15	7	4	4	24	20
8.**Zarautz**	**24**	15	7	5	3	30	18
9.**Mondra**	**23**	14	7	5	2	24	17
10.**Zestoa**	**22**	15	6	5	4	22	19
11.**Berio**	**19**	15	4	4	7	20	19
12.**Touring**	**18**	15	5	7	3	22	25
13.**Anaitasuna**	**16**	15	4	7	4	14	19
14.**Hernani**	**16**	15	4	7	4	16	23
15.**Idiazabal**	**16**	15	3	5	7	17	24
16.**Orioko**	**14**	15	3	7	5	18	30
17.**Beti Gazte**	**13**	15	3	8	4	17	26
18.**Irun 1902**	**11**	15	2	8	5	14	28
19.**Hondarribia**	**10**	15	2	9	4	13	30
20.**Allerru**	**8**	15	2	11	2	9	30

1. erregionala

Joko gutxi eta urduritasun handia Agorrosinen

BERGARA
0-2
UROLA

Arantzazu Ezkibel

Berdinketarekin amaitzeko partidua izan arren, Bergarak 0-2 galdu zuen zapatuan etxean. Urolak eta Bergarak sailkapeneko bigarren postua zuten jokoan eta hori dela eta, urduritasun handiko partidua izan zen Agorrosinen jokatutakoa.

Lehenengo zatia husnako berdinketarekin amaitu zen. Jokoari dagokionez, bizitasun gutxiko partidua izan zen. Bergarak baloia gehiago mugitu zuen arren, aurkariaren atean ez zuen inolako minik egin. Partiduko 18. minutuan izan zuen Bergarak gola sartzeko lehen aukera. Hernandez atezainak baloia azkar jarri zuen jokoan eta Bergarak aurkariak kontraerasoan harrapatu zituen. Imanolek atezainaren aurrean bakarrik geratzeko aukera izan zuen, baina bergararrek baloia galdu zuten eta jokaldia ezerezean gelditu zen.

LEHEN GOLA PENALTIZ

Bigarren zatian gauzak berdintsu joan ziren. 57. minutuan, Urolak falta ez zuzena izan zuen alde, baina baloiak barreran jo zuen.

Partidua amaitzeko 5 minutu falta zirela, epaileak Urolaren aldeko penaltia adierazi zuen. Igor Caballerok hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura eta ez zuen hutsik egin. Azkenean, Urolak bigarrena sartzeko indarra izan zuen eta partidua 0-2 amaitu zen. Orain Bergara 4. postuan dago.

AITOR LIZARRALDE

Baloiaren jabe izan arren, Bergarak arrisku gutxi sortu zuen.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Derbia borrokatua eta tentsio handikoa izan zen

Ford Mugarrik bigarren faserako ezinbestekoa zuen garaipena lortu zuen

FORD MUGARRI
25-23
BERGARA

Ford Mugarri | Egaña, Valle, J. Esquibel (2), A. Esquibel (3), E. Garcia (2), Urrutia, A. Garcia (2), Espeso, Iturrillo, Lonbide (1), Calleja (9), Alzelai (1), Isasmendi (5) eta Carrasco.

Bergara | Jon K., Uribe (2), Mikel L. (3), Agirre (3), Sanchez (4), Mujika (1), X. Najera, I. Najera, Zabaleta, Lenisoro (3), Ugalde (1), Zangitu, Ugartetxe (2) eta Plazaola (4).

Golak 5 minuturo: 2-1, 5-3, 8-3, 10-5, 12-6, 13-8, 15-10, 17-12, 20-16, 21-18, 22-20 eta 25-23.

AITOR LIZARRALDE

Ford Mugarriko jokalariek defentsa lan ona egin zuten. Irudian Bergarako Mikel Larrañaga blokeatzen.

Larraitz Zeberio

"Bergara eta Arrasateren artean beti egon da lehia eta gaurkoan ere hori garbi gelditu da". Ford Mugarri taldeko Jonan Esquibelen hitzak dira neurketa amaitu ondoren. Pozik ziren Arrasatekoak bigarren fasera begira ezinbestekoak zituzten puntuak lortu zituztelako.

Ez zen neurketa erraza izan. Derbiak beti izaten dira tentsio handikoak eta Bergarak itxura ona eman zuen Iturripen, gehien bat bigarren zatian. "Azken partiduak nahiko ondo atera zaizkigu", adierazi zigun Bergarako jokalari Mikel Larrañagak. "Arrasatekoa talde oso ona da eta gu berriak gara maila honetan. Irabazi egin digute".

TENTSIO HANDIKO AMAIERA

Arrasatekoak, ordea, ez zeuden gustura egindako partiduarekin eta Jonan Esquibelen hitzetan "partidu txarra" egin zuten.

Aurretik jarri ziren Arrastekoak hasieratik beretik eta beti joan ziren aurretik markagailuan. Bigarren zatian, ordea, Bergara aldea murrizten joan zen eta puntuazioak ia berdintzera iritsi ziren. Iturripen jende ugari bildu zen eta tentsioak gora egin zuen partidua aurrera joan ahala. Aulkitxoetan ere ezinegonak gora egin zuen eta azken minutuetan epaileen zenbait erabakik protestak eragin zituzten bi taldeetan. Pare bat minutuz Bergara hiru jokalarirekin gelditu zen eta tentsioak gora egin zuen. Partidu amaiera ikusgarria izan zen.

• 1. TERRITORIALA

Aloñakoek haserre bukatu zuten epailearekin

ARRIKRUTZ ALOÑA
22-23
DONIBANE

Arantzazu Ezkibel

Aloñako jokalari eta zaletuek haserre bukatu zuten zapatuan epaileak izandako jarrerarekin. Ligako liderraren aurka 22-23 galdu zuten oñatiarrek etxean, berdinketa eskuetan izan arren.

JOKO ONA EGIN ZUTEN

Iñigo Aranburu Aloñako entrenatzailea pozik zegoen jokalariek egindako lanarekin. Oñatiarrek partidu ona jokatu zuten, zaleen aurrean itxura ona erakutsiz. Defentsan sendo aritu ziren Aloñakoak, Donibanekoei erasoko jokaldi asko zapuztuz.

Aloñakoen haserrea Rafa Zuluetaren kanporatzearekin etorri zen. Epailea txartelekin nahastu egin zen eta azkenean, oñatiarraren kanporaketa bidegabea izan zen. Taldeak Zuluetaren galera asko nabaritu arren, Aloñak gogor jarraitu zuen erasoan, partiduari buelta eman nahian.

Azken minutuetan, Donibanek partidua erabakitzeko penalti bat izan zuen alde, baina Aloñako atezainak gelditu egin zuen. Oñatiarrek ere, partidua berdintzeko aukera izan zuten penalti bidez, baina hauek ere huts egin zuten. Azkenean, Aloñak ezin izan zuen berdinketaren gola egin eta partiduko bi puntuek Oñatikoen etxetik alde egin zuten.

• EUSKAL LIGA

Konfiantza falta zaie oñatiarrei

VERKOL ALOÑA
21-27
ELGOIBAR

Verkol Aloña | Guridi, Barrena, Goñi (3), Suarez (1), Moreno (3), Zubeldia (2), Douhabi (2), Elortza, Quintas, Arteaga (6), Garcia, Hernandez eta Manuel (4).

Elgoibar | Agirre, Urbizu (2), Aldazabal (2), Larrañaga (3), Garmendia (4), Debre (1), Loiola (7), Landaburu, Eizagirre (1), Arteaga, Lizarralde (3), Apellaniz (1), Gil (1) eta Lizarralde (2).

Golak: 2-1, 4-3, 8-7, 9-9, 12-10, 14-13, 14-14, 16-18, 17-20, 17-24, 19-26, 21-27.

Arantzazu Ezkibel

Aloñako neskek konfiantza gutxi erakutsi zuten zapatuan etxean Elgoibarren aurka. Oñatiarrek partidu polita jokatu zuten arren, lehenengo zatian batez ere, azkenean galdu egin zuten.

Elgoibarkoek defentsan huts asko egin zituzten eta Aloñak ondo aprobetxatu zituen aurkariek utzitako zuloak. Atsedenera 14-13 iritsi ziren aurretik.

PARTIDUAK IHES EGIN ZUEN

Bigarren zatian Aloñak behera egin zuen nabarmen. Etxekoek 1-5eko partziala izan zuten kontra, eta hor partiduak ihes egin zuen. Aloñako neskek konfiantza gutxi erakutsi zuten. Erasoan jaurtiketa samurrak huts egin zituzten eta joko nahasia egin zuten, urduritasunez betea. Azkenean, bi puntuek Zubikoatik Elgoibarrera alde egin zuten.

AITOR LIZARRALDE

Aloña sailkapeneko azken postuan dago.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA	
Verkol Aloña-Lojantzi Elgoibar	21-27
LEHENENGO TERRITORIALA	
Arrikrutz Oñatiko Kobak-Donibane	22-23
Ford Mugarri Arrasate-Bergara	25-23
BIGARRENGO TERRITORIALA	
Arrasate Esku Baloi	atsedena
GAZTE MUTILAK	
Bergara	atsedena
Aloña Mendi	atsedena
Gatz Museoa Jakion	atsedena
GAZTE NESKAK	
Arrasate E.B.-Urola Premank	11-24
Leizaran-Bergara	17-15
La Salle Legazpi-Verkol-Aloña	24-30
KADETE MUTILAK	
Legazpi-Aloña Mendi	13-24
Gatz Museoa-Jakion-J.D. Arrate	11-26
KADETE NESKAK	
Leizaran Txiki-Verkol-Aloña	04-14

• GAZTE MAILAKO MUTILAK

Saiatu arren ezinezkoa izan zen

Bigarren laurden bikaina egin zuten Aranetako mutilek, zazpi puntu atzetik joan ostean berdintzea lortu zuten eta

ARANETA
42-49
LOIOLA

Araneta | Aizpurua (3), Julian, Elizburu (3), Bolibar (4), Arazkonada, Iruretagoiena, Galarraga (15), Moreno (4), Gantxegi (7), Fernandez (6), Olaetxea.

Loiola | Recondo (19), Marcos (7), Telleria (8), Alonso (5), Herrero (6), Barrenetxea, Garcia (4), Txokarro et Fernandez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 11-18. Bigarren laurdena 25-25. Hirugarren laurdena 34-37. Laugarren laurdena 42-49.

Larraitz Zeberio

Bergarako taldeak ez zuen gaizki jokatu eta gauza politak egiten ikusi genuen, batez ere bigarren laurdenean. Atsedenaldiko emaitza ikusita, askok pentsatu genuen agian asteburu honetan heldu zitekeela taldearen lehenengo garaipena. Ez zen, ordea, horrela gertatu eta Loiolako taldeak neurketa kontrolatzea lortu zuen azken bi laurdenetan. Pena izan zen, etxeko taldeak ez baitzuen itxura txarra eman.

ARANETA GORA

Bergarako taldeak egin zuen saskira lehen jaurtiketa, baina kale egin zuen eta Donostiako taldeak estreinatu zuen markagailua. Aranetak ez zuen lehen laurden ona egin. Laster batean bederatzi puntu aurretik ziren loiolarrak eta tarteak handiegia zirudien neurketaren norabidea aldatzeko. Lehen minutu hauetan, baina, lan oso ona egin zuten Morenok eta Gantxegik.

Bigarren laurdena izan zen Bergarako taldearen onena. Jokoa azkartu zuten etxeko jokalariek eta defentsan lan ona egin zuten. Loiolako taldeak zailtasunak izan zituen puntuak sartzeko. Galarraga bereziki ondo aritu zen laurden honetan eta pixkanaka aldea jaisten joan zen markagailuan. Atsedenaldian berdinduta zeuden bi taldeak. Laurden honetan Aranetak 12 puntu saskiratu zituen eta Loiolak, berriz, zazpi.



AITOR LIZARRALDE

Partiduko bigarren laurdena izan zen etxekoen onena.

AZKEN BI LAURDENETAN EUTSI NAHIAN

Lan gogorra egin zuten Aranetako jokalariek berdinketara iristeko, baina hirugarren laurdenean etxekoek ez zuten erritmoa mantentzea lortu. Baloiak galtzen hasi ziren eta jaurtiketetan kaskarrago ibili ziren. Loiolako jokalariek defentsa asko hobetu zuten. Saski azpian, bestalde, blokeo gogorrak egin zituzten. Azkenaurreko laurden honen amaieran gainetik ziren berriz ere Donostiarrak, 34-37.

Azken minutuetan aldea zabaltzea lortu zuten Loiolakoek. Hiru puntuko tartea zazpiraino zabaldu zen, nahiko epe laburrean. Aranetako mutilek ez zuten amaierara arte amore eman, baina hobeto aritu ziren kanpokoak, bai saskiratzeetan zein defentsa lanean. Baloi ugari galdu zituzten Aranetakoek azken minutuetan.

• SENIORRAK

Eskoriatzako neskei buruak huts egin zien Donostian

ALDE ZAHARRA
71-46
ESKORIATZA

A.G

Eskoriatzak partiduak galtzen jarraitzen du. Zapatuan, Donostiako Alde Zaharra taldearen aurka 71-46 galdu zuten Javi Corbalen neskek. Ondorioz, sailkapeneko azken postutik ateratzea gero eta zailago dute.

Lehenengo laurdenean partidua maldan gora jarri zitzaien Eskoriatzakoei. Donostiarrek alde handia atera zieten eta markagailuan ihes egin zuten.

Eskoriatzako neskek defentsan gogor egin zuten eta horren ondorioz, hirugarren laurdenean 10 puntura hurbiltzea lortu zuten. Hala ere, konfiantza gutxi erakutsi zuten eurengan, eta etxekoek 3 saskiratze jarraian egin ostean, Eskoriatza berriro ere markagailuan atzean gelditu zen. Erasoan baloia saskira botatzea kosta egin zitzaien. Taula azpiko jokoan huts asko egin zituzten, batez ere jaurtiketa samurretan.

BURUAK HUTS EGIN

Javi Corbal entrenatzaileak adierazi digunez, jokalariei buruak huts egiten die. Sailkapeneko azken postuan egoteak jokalariengan asko eragiten du. Partidua aurka jartzen zaienean, konfiantza galtzen dute eta partiduari buelta ematea kosta egiten zaie.

• LEHENENGO MAILA

Urteko partidarik onena egin zuten

AUTO ESCUELA ALAVA
86-97
MUGARRI ALKESA

A.G.

Etxetik kanpo jokatu zuten eta sailkapenean ondotik duten taldearen aurka. Zalantzarik gabe, neurketa garrantzitsua zen.

Ondo aritu ziren Zurutuzaren mutilak. Ondo baino gehiago, bikain. "Denboraldiko partidurik borobilena izan da", esan digu taldeko kapitain Jagoba Gamarrak. "Hasieratik jarri ginen aurretik, eta amaieran emaitza txukuntzea lortu bazuten ere, 20 puntuko aldea atera genien behin baino gehiagotan".

Laurdenetako emaitzak nahiko esanguratsuak izan ziren: 17-23, 34-47, 54-75 eta 86-97.

BIGARREN FASEARI BEGIRA

"Aurrerantzean ondo kalkulatu beharko dugu irabaztea interesatzen zaigun ala ez", adierazi digu Jagobak. "Bi partida galdu ditugu denboraldi honetan eta biak Tabirakoren aurka. Ez zaigu interesatzen talde hau goian sartzea. Kontuak atera behar ditugu".

ARTXIBOA

Etxeko taldeak ondo jokatu zuen, baina Arrasatekoek bikain.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA	
Auto Escuela Alava-Mugarri Alkesa	86-97
NESKEN BIGARREN MAILA	
Alde Zaharra-Eskoriatza	71-46
SENIOR MUTILAK	
Candy	atsedena
Aloña Mendi	atsedena
SENIOR NESKAK	
Aloña Mendi	atsedena
GAZTE MUTILAK	
Araneta-Loiola	42-49
La Salle-Mugarri Alkesa Arrasate	50-83
Easo-Aloña-Mendi	72-60
GAZTE NESKAK	
Eskoriatza	atsedena
Aloña Mendi	atsedena
KADETE MUTILAK	
Goierri A-Mugarri Alkesa Arrasate	67-82
Aloña Mendi	atsedena
KADETE NESKAK	
Bergara-Atco.Sn.Sn. Axular	81-39
Eskoriatza	atsedena

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko abenduaren 5a

Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

"Jokoak egiten ditugu batez ere, eta oso gustura jarduten dugu"

Aretxabaletako kirol etxean neska-mutikoak elkarrekin jokoan ikusi genituen

Errugbia ardatz hartuta hainbat joko egin zituzten gaztetxoek zapatuan

Umeak errugbira hurbiltzea da partiduak beharrean jokoak egitearen arrazoia

Geaxi Ezpeleta

Gaztetxoak kiroletan horren trebe ikusiz jakin-mina genuen ia berezkoa ala entrenamendu bidez lortutakoa zuten trebetasuna. Beraiengana hurbildu eta entrenamendu saioen inguruan galdegin genien. Denek aitortu ziguten entrenamenduetara oso gustura joaten direla. "Gainera, batez ere jokoak egiten ditugu" esan ziguten. Pozik eta atseginez joaten dira, beraz, astean zehar neska-mutikoak zapatuetako eskola kiroleko partiduetarako entrenatzera.

Deialdia taldeka eginda bazegoen ere, elkarrekin nahastuta jardun zuten gaztetxoek. Pozpozik ikusi genituen errugbia ardatz hartuta antolatutako jokoetan parte hartzen.

JOKOEN BIDEZ GAZTETXOAK ERAKARRI NAHIAN

Aretxabaletako eskola kiroleko arduradunetako batek esan zigunez, "kirol batzuetan asistentzia altuagoa da beste batzuetan baino, esate baterako futbolean". Horren ondorioz, gaztetxoak errugbia bezalako kiroletara hurbiltzeko partiduak beharrean jokoak prestatzen dituzte neska-mutikoentzat.

Aretxabaletako eskola kirolak baliabideak jarri arren, errugbi elkartekoek antolatzen dituzte gaztetxoentzako jokoak.

GEAXI EZPELETA

Gazteluondo 6. Arrate, Ane, Eider D.C., Elene, Haize, Ainhoa, Nahia, Miren, Eider E., Alaitz, Garazi, Itziar, Irene eta Ilargi.

GEAXI EZPELETA

Gazteluondo 6A. Jokin, Aitor, Ibon, Aner, Julen, Haritz eta Oierrek osatzen dute taldea.

GEAXI EZPELETA

Santa Teresa. Nerea, June, Maialen, Ilenia eta Izarrek osatzen dute taldea.

GEAXI EZPELETA

San Viator. Maialen, Naikari, Ane, Marta, Irantzu, Olatz, Garazi, Aitziber, Irati, Ainhoa eta Andrea.

• ENTRENAMENDUETAN ERE ONDO PASATZEN DUTE GAZTETXOEK

UNAI, GORKA, JON ETA ADRIAN |
GAZTELUONDO 5B

"Gu oso ondo ibiltzen gara entrenamendu saioetan. Jokoak egiten ditugu batez ere, eta pixka bat nekatzen garen arren gustura jarduten dugu. Gainera, entrenatzaile ona daukagu, nahiz eta partidu asko galtzen ditugun".

ILENIA ETA IZAR |
SANTA TERESA

"Astean bi bider egiten ditugu entrenamenduak eta asko nekatzen gara. Hala ere, hainbat kirolen inguruko jokoak egiten ditugu eta gustura joaten gara".

HARITZ ETA JULEN |
GAZTELUONDO 6A

"Entrenamenduetan ongi pasatzen dugu eta ez gara gehiegi nekatzen. Astean bi bider bakarrik entrenatzen dugu eta beti egiten ditugu jokoak eta partiduak".

AINHOA |
GAZTELUONDO 6

"Astean bi aldiz elkartzen gara eta ez dira oso saio gogorrak izaten. Jolasak egiten ditugu batez ere".

Pilota

• TITIN ETA EULATE NAGUSITU ZIREN BERGARAN

Amaierara arte borrokatu behar izan zuten partida

Antzuolako txapelketan lau partida jokatu ziren zapatuan

A.G.

Hiru partida jokatu ziren atzo, domeka, Bergarako pilotalekuan. Neurketa nagusian bi bikote: Titin III.a-Eulate (gorriz) eta Martinez de Irujo-Lasa III.a (urdinez). Bikote gorriak irabazi zuen 22-18. Hasieratik jarri ziren gainetik eta alde handiarekin gainera. Eulate bikain aritu zen, eta Titin III.ak aukera ia guztiak aprobetxatu zituen. Martinez de Irujo izan zen, agian, makalen ibili zena. Gorriak 17-08 jarri ziren aurretik, baina urdinek ondo eutsi zioten markagailuari. Azkenean emaitza txukuna,22-18.

AITOR LIZARRALDE

Eulatek partidu ona egin zuen atzo, domeka, Bergaran.

ANTZUOLAKO TXAPELKETA

Zapatuan lau partida jokatu ziren Antzuolan. Larrea eta Aranguren 18-13 irabazi zieten Urtzelai eta Agirrebeitiari. Muguruzak eta Jauregik 7-18 galdu zuten Aranburu eta Irizarren aurka. Aranguren eta Agirrek 18-5 irabazi zuten Lezeta eta Aranbururen aurka. Azken partiduan, Lizarraldek eta Azkaratek 7-18 galdu zuten Saralegi eta Agirrezabalen aurka.

Errugbia

AITOR LIZARRALDE

Garagartzako zelaiaren egoera txarrak asko baldintzatu zuen neurketa.

Arrasatek 17-3 irabazi zion Santoñako taldeari

A.G.

Santoñakoek estreinatu zuten markagailua, baina Arrasateko taldeak irabazi zuen neurketa. Norgehiagoka hasi bezain laster trop bat egin zuten kanpokoek. Ikusgarria eta sinesgaitza izan zen, baina horrela gertatu zen.

Etxekoek ondo egin zituzten gauzak. Poliki-poliki lekua hartzen joan ziren zelaian eta azkenean hiru entsegu egitea lortu zuten. "Talde gaztearekin aritu gara", esan digu taldeko Kakok. "Hiru bat jubenilekin jokatu dugu eta zelaiaren egoera kontuan hartuta ondo aritu gara".

Datorren astean ez da etxean neurketarik jokatuko. Taldeko entrenatzaileak Uruguain daude eta elkarteak atzerapena eskatu dio Federazioari. Hurrengo partidua hilaren 17an jokatuko da.

GABON OPARIRIK EDERRENA

Bergara aldeko hiztegia
Juan Martin Elexpuru

ANTÓSIÑ, antosíña. (a). *iz.* Ura edateko erabiltzen den eskuleku bakarreko metalezko ontzitxoa.• Acetre, bacineta. *Kaletik etorri tta antosinkara ura eran ...eban danga-danga.* ...in. **txolet** (Ub.).

antosiña

...NTS, ántsa. (d). *iz.* Hatsa, kiratsa, usain txarra.• Hed... *...rtziaz batera egundoko antsa sentidu juat./ Etxaki... ...na dan, baiña joaten eztan antsa jaok etxian.* Gu... ...ilia, familia batzuetan hitz arrunta bada ere. **Usain tx...** ...a esanena.

...SITTU. (d, Eib.). *ad.* "Pudrirse, descomponer... *...baiño len antsittu jako arraiña."* (Etxba *Eib*). S...

EZAUGARRIAK
- 12.000 sarrera
- 800 argazkia, mapa eta koadro
- 768 orrialde

Prezioa
30 €

Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak
liburu bilduma

BILDUMAKO LIBURUAK
- Linua, ehuna eta artilea
- Txondorrak, karobiak eta elurzuloak
- Zura: arotzak eta etxegileak
- Burdina: errementariak eta perratzaileak

Prezioa
Liburu bat: 9 €
Bilduma: 30 €

Bergarako Udala
Euskara batzordea

SALMENTA LEKUAK: Liburu-dendetan • Bergarako Kultura Etxean (Errotalde Jauregia) 943 77 91 59

ANDONI AZKARGORTA | ANTZUOLARRA, MONDRAKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

"Eskatzeko eskubidea dute, dirua dagoen bitartean"

Xabier Urtzelai

Racing-Real, 2-2.

Joan zen astean moduan. Lehenengo zatian lana ondo eginez aurrera egin, eta bigarrenean... Esango nuke Realak ez duela esperientziarik jokoaren errimoa geldotzea komeni zaionean. Jokalariak urduri jartzen dira, eta behar ez diren gauzak egiten dituzte; salduta geratzen da taldea.

Bartzelonak Xavi galdu du, eta Realak Aranburu.

Bai, baina Aranbururen falta gehiago igarriko du Realak. Hainbat postutan joka dezakeen jokalaria da, azken metroetan zer egin jakiten duena. Xavi ere oso garrantzitsua da Bartzelonarendako, baina ordezkoen artean oso jokalari onak daude. Iniestak izango du orain aukera ederra; sekulako jokalaria da, eta orain izango ditu beharrezkoak dituen minutuak.

Realeko bazkideek %30 gehiago ordaindu beharko duzue urtarrilean; Fuentesek esan du bazkideek erantzun egingo duzuela.

Lasaitasun handiegiarekin esan du hori. Egia da Realeko bazkideak Lehenengo Mailako taldeen artean gutxien ordaintzen dugunetakoak garela, baina igoera handia da egun batetik bestera egiteko.

Ondare ederra utzi zuen Astiazaranek.

Presidentzia utzi baino egun bat lehenago Zubietako hainbat lursail saldu zituen, utzi behar zuen zorra txikitzeko. Eta, Liga amaitu arte egon zen, dimititu barik, hori behar zuen eta Ligako presidente izendatzeko. Esango nuke Madril aldean hemen baino gusturago dabilela.

XABIER URTZELAI

Andoni Azkargorta Mondran ari da aurten.

Ederra barkatu zuen atzo On Kezmanek.

Bi eta hutsekoa sartuko balute... Athleticek gauza bat du ona:

"Barçak Xavirena baino gehiago igarriko du Realak Aranbururen falta"

San Mames; zaleen laguntza ezinbestekoa da. Nire ustez, baina, Etxeberria, Urzaiz eta horrelako jokalariek *trote* handia izan dute, eta atzetik ez da erreleborik ikusten. Zerbait pentsatu beharko dute.

Casillas-i kontratua berritu, eta Luxenburgo kalera bota. Hustu du poltsikoa Florentinok.

Casillasek merezi zuen. Zenbat puntu atera dituzten berarengatik... Jokalariek irabazten dutena lekuz kanpo dago, baina dirua dagoen bitartean, eskatzeko eskubidea dute.

Harmailatik

Zenbat inuzentekeria

Xabier Urtzelai

Buruarekin. Horrekin pentsatzeko ibili zen esaten Riesgo bere jokalariei behin eta berriro, baina kasurik ez. Joan zen astean Garitanok ikusi zuen bigarren txartel horia soberan bazegoen, atzo Gari Urangak egindakoaren gainean hobe ezer ez esatea.

Alderatzeak. Ezin bat ondo egin; halaxe ibili zen atzo Jauregi, eta Mikel Alonso saiatu zenerako, Riesgoren gorputzean jo, eta barrura.

Zortzi milioi. Uztailean, zenbateko horregatik saldu ahal izan zuen, ustez, Realak Nihat; atzo, albiste horri eskaini zion azala talde zuri-urdina jarraitzen duen Katalunia aldeko egunkari batek (argiago ezin esan). Eta, Realak bitartekaria aldatu zuelako bertan behera geratu omen zen operazioa. Gaitza da hori horrela denik sinistea, sinpleegia gauza onerako.

Piterman, berriro. Joan zen astean aipatu genuen Alavesko presidenteak preferentziazko tartea izan behar duela beheko taulatxoan, geziak behera egiten duen horretan. Oraingoan, baina, bromatik harantzago joan da. Gasteiz aldeko kazetariei galantak bota dizkie, eta euretako baten osasun egoeraren gainean barre egin du. Aberats izateak ez du edozertarako zilegitasuna ematen. Gainera, taldea txarto dabil; nekatuko ote dira gasteiztarrak...

Luxenburgo. Konplikatua da gero Real Madrilgo entrenatzailea izatea. Taldea aurreko postuetan, Getaferi irabazi, eta hala ere, kalera. Ikustekoa izango da kontratua ez betetzeagatik zenbat emango dioten. Gutxi gora-behera, Seat automobil etxeak El-Praten kaleratu behar dituen langile guztiek jasoko dutena.

San Mames beteta
Beste behin, zale zuri-gorriak izan ziren Athletic-i bultza egin ziotenak. Taldea azkeneko postuan, partidua galtzen, eta 96. minutura arte, guztiak euren jarlekuetan, animatzen.

Oriol Lozano
Racingeko atzelariak arratsalde biribila izan zuen atzo. Aranbururi egindako sarrerarekin konforme ez, eta Barkero izan zuen hurrengo jomuga. San Mamesen petardoa bota zuenak ere...

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Sevilla-Deportivo	0-2
Racing-Reala	2-2
Alaves-Mallorca	0-3
Espanyol-Valentzia	1-3
Cadiz-Zaragoza	1-2
Malaga-Osasuna	1-2
Vila-real-Bartzelona	0-2
Celta-Betis	2-1
R.Madril-Getafe	1-0
Athletic-Atletico	1-1

HURRENGOAK

Valentzia-Athletic
Betis-Espanyol
Zaragoza-Celta
Deportivo-Cadiz
Bartzelona-Sevilla
Reala-Vila-real
Getafe-Racing
Malaga-R. Madril
At. Madril-Alaves
Osasuna-Mallorca

SAILKAPENA

		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.	**Bartzelona**	**31**	14	9	1	4	36	12
2.	**Osasuna**	**31**	14	10	3	1	21	14
3.	**Celta**	**26**	14	8	4	2	18	15
4.	**R.Madril**	**25**	14	8	5	1	25	16
5.	**Valentzia**	**25**	14	7	3	4	21	16
6.	**Vila-real**	**23**	14	6	3	5	20	14
7.	**Deportivo**	**23**	14	6	3	5	19	14
8.	**Sevilla**	**23**	14	6	3	5	13	8
9.	**Getafe**	**21**	14	6	5	3	20	19
10.	**Reala**	**18**	14	5	6	3	21	28
11.	**Atletico**	**17**	14	4	5	5	14	14
12.	**Malaga**	**15**	14	4	7	3	21	20
13.	**Mallorca**	**15**	14	4	7	3	14	22
14.	**Zaragoza**	**14**	14	2	4	8	14	18
15.	**Cadiz**	**14**	14	3	6	5	10	15
16.	**Espanyol**	**13**	14	3	7	4	11	18
17.	**Racing**	**12**	14	2	6	6	9	17
18.	**Athletic**	**11**	14	2	7	5	13	19
19.	**Alaves**	**11**	14	2	7	5	13	22
20.	**Betis**	**11**	14	2	7	5	10	22

Kiniela

KINIELA

1.	**Vila-Real-Bartzelona**	**2**
2.	**Sevilla-Deportivo**	**2**
3.	**Cadiz-Zaragoza**	**2**
4.	**Celta-Betis**	**1**
5.	**Espanyol-Valentzia**	**2**
6.	**Alaves-Mallorca**	**2**
7.	**Malaga-Osasuna**	**2**
8.	**R.Madril-Getafe**	**1**
9.	**Racing-Reala**	**X**
10.	**Levante-Murtzia Hiria**	**1**
11.	**Murtzia-Castellon**	**1**
12.	**Albacete-Almeria**	**1**
13.	**Lorca-Tenerife**	**X**
14.	**Lleida-Valladolid**	**2**
15.	**Athletic-Athletico**	**X**

Euskal taldeen asteko hamaikakoa

Hamasei urte zituen Iban Velascok txirrindularitzan hasi zenean. Aurten hamargarren denboraldia egingo du bizikleta gainean eta tropel profesionalean izango da. Orbea taldeak fitxatu du 25 urteko arrasatearrak. Mundu berri bat zabaltzen zaio. Ilusioak eta urduritasunak bat egiten dute Ibanengan.

IBAN VELASCO | ORBEA TALDEKO TXIRRINDULARI ARRASATEARRA

"Tropel profesionalera ondo egokitzea da nire aurtengo helburua"

Larraitz Zeberio

Aurtengo denboraldian erronka berriak dituzu. Pozik? Urduri?

Denetarik pixka bat. Batez ere urduri nago, ez dakidalako zer aurkituko dudan maila honetan. Baina ilusioa ere handia da. Gauzak ondo egiteko gogoz nago.

Zazpi urte egin dituzu amateur mailan. Zer suposatzen du zuretzat fitxaketa honek?

Gauzatutako ametsa da. Txikitatik eduki dudana eta orain iritsi dena.

Hamasei txirrindularik osatuko duzue Orbea taldea. Gustura zaude Jon Odriozola oñatiarrak zuzentzen duen proiektuan?

Bidelaneko bi kide egongo gara taldean eta beste taldekide asko ezagunak ditut. Ia denak amateur mailatik igotakoak gara, denok ezagutzen dugu elkar.

Txirrindulari gutxik izaten dute profesionaletara igotzeko aukera. Zergatik uste duzu izan zarela hautatuetako bat?

Ez didate ezer aipatu, baina Bidelan taldean segimendu oso zorrotzak egin dizkigute. Analisiak, esfortzu probak... Hori guztia Orbea taldean aurkeztu da eta Jon Odriozolari gustatu egin zaizkio. Taldeko bi kidek fitxatu dugu Orbearekin.

Zeintzuk izango dira zure betebeharrak taldean? Azaldu dizkizute?

Oraindik ez dakigu ezer, baina betebeharrak betikoak izango dira. Gauzak ondo egitea, ondo entrenatzea eta itxura ona ematea Orbea enpresarendako garrantzitsua delako.

Kirol mailan, agian, ez ditugu erronka oso handiak. Gazteak gara, lehen urteak ditugu tropel profesionalean eta ez dute gure gain presio oso handia jartzen. Lehen pausoak ematen ari gara.

Eta zeintzuk izango dira zure hitzordu berriak? Zein probatan ikusteko aukera izango dugu?

Oraindik ez digute egutegia eman, baina Jon Odriozola entrenatzaileak esan didanez taldeak iaz egindako proba berak izango dira.

Eta zure gustukoak dira?

Ez dut asko begiratu, baina hemen izanda, uste dut Euskal Bizikleta esperientzia polita izango dela.

Noiz hasten duzue denboraldia?

Ustez otsail hasieran, lehenengo edo bigarrengo astean. Mallorcara joatekoak gara bertan egiten den lasterketa batean parte hartzera.



AITOR LIZARRALDE

Ibanek otsailean emango dio hasiera profesional mailako lehen denboraldiari.

"Bidelan taldean jarraipen oso zorrotzak egin zizkiguten. Orbean gustatu egin zaizkie eta bi kidek fitxatu dugu taldearekin"

"Lehen urtea dugu profesionaletan eta ez digute irabaztea exijitzen. Gure betebeharra itxura ona ematea da"

"Hemen izanda, Euskal Bizikleta niretako oso esperientzia polita izango delakoan nago"

Ondo ibiltzen zara mendian. Zure alderik ahulena erlojupekoa da.

Horrela da. Orain arte ez naiz erlojupekoetan oso ondo moldatu. Maldan gora hobeto aritu naiz, baina profesional maila beste mundu bat da eta ikusi egin beharko dut non ibiltzen naizen ondo eta non ez.

Egunero entrenatzen zara. Entrenamenduetan aldaketa handiak nabaritu dituzu?

Ez. Medikua eta prestatzailea ditugu eta jarraipena egiten digute. Ordu gehiago entrenatzen ditut baina entrenamenduak berdintsuak dira.

Garai berri bat zabaltzen da zuretzat. Zeintzuk dira zure helburuak?

Tropel profesionalean irabaztea oso zaila da, batez ere lehen urteak badituzu. Aurten, profesional mailara ondo egokitzea da nire helburua. Konfiantza pixka bat hartzea ere bai.

Faltan botako duzu amateur mailako probarik?

(Barre) Ez. Zazpi urte egin ditut urtero proba beretan parte hartzen eta nire ustez ez dut ezer faltan botako. Aspertu ere egiten gara beti proba beretan.

• ARETO FUTBOLA, 1. MAILA

AITOR LIZARRALDE

ALOÑAK ETXEAN ASPALDIKO PARTEZ IRABAZI ZUEN

Aloñak 5-2 irabazi zuen Zubikoan Bilkoin Legorretaren aurka egubakoitz iluntzean. Partidua nahiko parekatua izan zen, emaitzak hori islatu ez arren. Legorretakoak 0-1 aurreratu ziren. Berdinketaren gola Sergiok sartu zuen. Minutu gutxiren ondoren, kanpokoak aurreratu ziren 1-2. Aloñakoen bigarren eta hirugarren golak Ikerrek sartu zituen. Partidu amaieran, Legorretak arriskatu egin zuen, atezaina kendu eta jokalari bat gehituz. Hau aprobetxatuz, Josebak eta Iñigok partidua borobiltzea lortu zuten.

• ARETO FUTBOLA, 3. B MAILA

AITOR LIZARRALDE

ARETXABALETAK LIDERRAREN AURKA GALDU ZUEN

Aretxabaletako UDA Mercedes Goiko Leniz taldeak 1-3 galdu zuen Anoetako Gazte Asanbladaren aurka. Aretxabaletakoek joko polita egin zuten, baina partiduko lehenengo 3 minutuetan jasotako 2 golak larregi izan ziren. Aretxabaletakoek ezin izan zuten alde hori murriztu. Bigarren zatian, Mikel Castrok etxekoen gol bakarra sartu zuen. Partidu amaieran, UDAk penalti bikoitza izan zuen alde. Hala ere, huts egin zuten eta markagailura ez zen beste golik igo. UDAkoek 13 puntu dituzte eta 6. daude sailkapenean.

Labur

Emaitza onak senior mailako Gipuzkoako Karate Txapelketan

Atzo, domeka, hitzordu garrantzitsua zuten Gipuzkoako senior mailako karateka guztiak, izan ere Gipuzkoa mailako txapelketa jokatu baitzen hiriburuan. Bergarako elkartetik bi karate joan ziren txapelketara eta emaitza onak lortuta itzuli ziren etxera.

Alberto Lera karate oñatiarra lehen postuan sailkatu zen bere kategorian, hau da 80 kilotik gorakoen mailan. Alberto Barak ere txapelketa ona egin zuen, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen, kasu honetan 60 kilotik beherakoen mailan.

KULTURA
Aisialdia eta Zerbitzuak

• 'Numenak Aita' komiki liburua aurkeztu zuten eguenean Arrasaten | 25
• Hilaren 10ean, 22an, 16an eta 17an antzeztuko dute *Baserria* zartzuela Arrasaten | 25

Opeth eta Arch Enemy taldeek kontzertua egingo dute eguenean, Jam aretoan | 27

'SEUSSEN MUNDUA' MUSIKALA

ABENDUAREN 11N AURRE ESTREINALDIA | SANTURTZIKO SERANTES ARETOAN IZANGO DA. EUSKALDUNAN, ABENDUAREN 27, 28 ETA 29AN

Broadway eramango dute Euskaldunara bergararrek

20 musikari, 31 ume, 54 heldu, 7 dantzari eta 24 bakarlari ikusiko ditugu Nor planetan eta Non oihanean 'Seussen Munduan'

AITOR LIZARRALDE

Bi munduen artean arituko da Katu Txisteraduna bere magia erabiliz.

Marijo Deogracias

Katu Txisteradunak eramango gaitu Nor planetatik oihanera eta alderantziz. Berak dauka bi munduen artean mugitzeko ahalmena; *Seussen Mundua*ren narratzailea da. Horrela azaldu digu Valen Moñux zuzendari artistikoak. Non oihaneko bizilagunak aurkeztu ditu, baita Potol elefantea ere. Berak aurkituko du hauts-izpi tamainako mundu txikia. Historia Theodor Seuss Geisel-ena da, Dr. Seussena. AEBn oso ezagunak dira bere historiak eta gainera *Seussen Mundua* 2000n estreinatu zen Brodwayko eszenatokietan, *Seussical* izenez.

ESTREINALDIAREN ZAIN

Adrenalina barra-barra sentitzen duela aitortu digu, baina antzera daude beste arloetako kide guztiak ere. Baina pozik; ene, zein pozik! Estreinaldia iristeko gogo biziz guzti-guztiak. Gainera, denek parte hartzen dute eszenatokian: Marije Gertrudis da, Potol elefanteaz maitemintzen den ahate itsusia; Oihane eta Rosa mugitzeko nahiko lan izango duten antilopeak dira, Blanca eta Arrate nortarrak dira…

Guzti-guztiek egingo dute dantza eszenatokian eta gainera, bistara ez daudenean ere koroan abesten, dekoratua mugitzen edo oihaneko animaliaren baten hankak mugiarazten jardun beharko dute musikaleko parte-hartzaileek. Zuzendari artistikoak dioen moduan, "horrelako musikal bat ezinezkoa litzateke guretako medio humanorik barik. Hortxe dago gure indarra; izan ere, guk ez ditugu Broadwayn dituzten baliabideak. Hala ere, han lako ikuskizuna egitea lortu dugu".

Santurtziko Serantes aretoan izango da aurrestreinaldia abenduaren 11n eta hurrengo, Serrano produkzioak aurkeztuta, Bilboko Euskalduna jauregian izango dira abenduaren 27an, 28an eta 29an. Guk asteburu honetan ikusi ditugu entseguan eta ikuskizunak merezi duela aurreratzen dizuegu.

• ARLOKAKO ARDURADUNEKIN IZAN GARA. ERABAT EMOZIONATURIK DAUDE GUZTIAK ETA ATZETIK LAN ITZELA DAGOELA AITORTU ARREN EMAIT

DAVID AZURZA |
MUSIKA ZUZENDARIA

Orkestrentzako ohikoak ez diren musika estiloak landu dituzte eta "luxua izango da musikalean zuzenean aritzea" aitortu digu Davidek. "Orkestrari dagokionez, "Broadwayko musikalek erabiltzen duten formatua eratu dugu".

ROSA NARBAIZA |
ITZULTZAILEA

Nere Amaia Zabalaren itzulpen literala eta Madrilen egindako bigarren bat erabili dituzte testua euskaratzeko. "Historia oso korapilotsua da eta Seusseren ipuinak gurean ez dira hain ezagunak, baina sormen lan polita izan da", esan digu Rosak.

BLANCA NARBAIZA |
ERREGIDOREA

Berari dagokio eszenatokiko azpiegituraz arduratzea saioan zehar. "Errazagoa izango zela uste nuen. Hiru panel, bi eskailera eta dorre-plataforma bat mugitu beharra dauzkagu. Estresagarria izan arren, oso gustura egin dut lan", dio Blancak.

AMAIA MARCO |
PRODUKZIO ARDURADUNA

Hamabi laguneko taldea ari da talde teknikoan. "Entseguekin martxoan hasi ginen eta uztaila ezkero ari da talde teknikoa lanean. Jantzietako batzuk jostunek egin dizkigute eta Kukubiltxok alderik ikusgarriena", azaldu digu Amaiak.

ESTIBALIZ ALKORTA |
ATREZZO-JANTZIEN KOORD.

Erakusleihoak apaintzen aritzen da normalean, eta orain "jantzien osagarriez eta esaterako, umeen kapelez arduratu naiz. Lehenengo aldia izan da niretako, eta lan zaila izan arren, sormen lan oso polita izan da", esan digu Estik.

'SEUSSEN MUNDUA' MUSIKALA

A.G.

Katu Txisteradunaren oinarrizko marrazkia.

AITOR LIZARRALDE

Non oihaneko bizilaguna.

AITOR LIZARRALDE

Nortarrak entsegu baten.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Nor planeta irudikatzeko erabilitako marrazkietako bat.



AITOR LIZARRALDE

Genghis Khan Smitch jeneralaren ejerzitoa nortarra.

VALEN MOÑUX | ZUZENDARI ARTISTIKOA

"Familia guztiarendako ikuskizun modernoa da"

M.D.

Urtebete eman dute baldintzak betetzen zituen musikalaren bila: familia osoarendako ikuskizun korala izatea eta antzezteko baimena zuena. Azkenean lortu dute: *Seussen Mundua*.

Urduri zaude?

Urduritasuna baino gehiago adrenalina da gainean dudana.

Nolakoa da *Seussen Mundua*?

Ikuskizun modernoa da, oso garaikidea eta Broadwayko musikalen estilokoa. Asko gustatuko zaio jendeari. Gure garaiko estiloko ikuskizuna da eta oso gertu sentituko du publikoak.

Bi mundu erakusten dituzue, baina nola egiten da hori?

Oihana erakustea nahiko erraza da, baina beste mundua erakustea erronka bat izan da. Sorpresak badaude, baina historia ez da sorpresa eta hasieratik diogu hauts-izpi tamaina duen munduko biztanleak salbatu nahi izan zituen elefantearen historia dela. Hori guztia medio humano itzelak ditugulako da posible.

Valen Moñux.

TZA IKUSTEKO DESIRATZEN DAUDELA ESAN DIGUTE

ALICIA DE CESAR | KOREOGRAFOA

"Musika oso aberatsa denez hemen, sormenerako aukera gehiago eman dit. Jende guztiak dantza egin behar izateak beldurtzen ninduen, baina aitortu behar dut langile oso finak izan direla guztiak; itzelak dira!", azaldu digu Aliciak.

OIHANE TOLEDO ETA MARIJE UGALDE | ABESLARIEN ZUZENDARIAK

Bergarako Musika eskolan kantu irakasle dira biak. "Abesbatzatik 11 urtetik beherakoak daude, ahal zela aurretik musikaletan aritu ez direnak. Gainontzekoak ahots teknikak ikasten ari diren ume txikienak dira", azaldu digu Marijek. Oihanerendako horrelako lehenengo esperientzia izan da: "Bergaran ari naizelako tokatu zait eta esperientzia ezin hobea izan da profesionalki. Abeslariek, batez ere umeek, ordu asko sartu dituzte ohiko eskoletatik kanpo eta hain txikiak izanik mirestekoa da jartzen duten gogoa".

ARRATE BENGOA | ORFEOIKO LEHENDAKARIA

"Dantzan egin beharra izan da, agian, berriena guretako. Baina musika ere erabat desberdina da. Orokorrean oso deigarria da; show ukitu erabatekoa dauka eta Kukubiltxok egin duen lana gehiegizkoa da", aitortu digu Arratek.

MARTIN OTEITZA | BAKARLARIA

Bederatzi urte ditu Martinek eta Ttipi da musikalean, Nor planetako lehendakariaren semea. Gustura dabilela esan digu, ordu asko sartzen dituztela aitortu arren. Musika eskolako ahots teknikako gelatik dator eta Gertru du pertsonaia gustukoena.

DEBAGOIENEKO MUSIKA ESKOLETAKO IKASLEEN KONTZERTUA

A.L.

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA | ORKESTRA SINFONIKOA | 34 bat lagunek osatzen dute eta eurek ordezkatu zuten Bergarako eskola. *La Roxolane* eta *Serenata* jo zituzten.

A.L.

ESKORIATZAKO MUSIKA ESKOLA | ESKORIATZAKO GAITARIAK | Ez da ohikoa, baina Galiziako gaita irakasten dute Eskoriatzan. Flauta taldeak ere egin zuen emanaldia.

• BATZUK URDURI, BESTE BATZUK EZ

ITZIAR ETA AMAIA | OÑATIKO MUSIKA ESKOLA

Pianoa eta biolina jotzen dute. Iaz ere hartu zuten parte musika eskola guztiek elkarrekin egiten duten kontzertu honetan. Oso pozik zeuden egin behar zuten errepertorioarekin: "Oso polita da eta ez gaude urduri".



ASIER ETA LEIRE | OÑATIKO MUSIKA ESKOLA

Flauta jotzen dute. Emanaldia hasi aurretik harrapatu genituen eta Jonek esan zigun "urduri samar" zegoela, "baina oso gutxi". Asierrek, berriz, ez daki zer den urduri egotea: "Ez nago batere urduri", esan zigun.

ITSASO, IDOIA ETA ERIK | ESKORIATZAKO MUSIKA ESKOLA

Lehenengo aldiz hartu dute parte hiru flautistek ibarreko musika eskolen kontzertuan. Oso pozik zeuden: "Beste eskola batzuetako ikasleak ezagutzeko aukera ematen du eta baita zer eta nola joten duten entzuteko ere". Emanaldia egin eta gero egon ginen eurekin eta nahiko lasai zeuden. Izan ere, "emanaldiaren aurretik nahiko urduri egon gara", aitortu ziguten "baina dagoeneko jo dugunez, lasaitzen hasita gaude".

MUSIKA ESKOLAK | IBARREKO ESKOLEK KONTZERTUA EGIN ZUTEN BERGARAN

Ibarreko musikari gazteen erakusleiho izan zen pilotalekua

Sei musika eskolatako 200 ikasle inguru batu ziren Bergarako Udal pilotalekuan. Hirugarrengoz egin dute kontzertua elkarrekin

Monika Belastegi

Musika ikaslez bete zen egubakoitzean Bergarako Udal pilotalekua. Izan ere, Debagoieneko musika eskoletako ikasleek kontzertua egin zuten. Han izan ziren Aretxabaletako Leizarra Musika Eskola, Arrasate Musikal, Eskoriatzako Musika Eskola, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola, Soraluzeko Musika Eskola eta Bergarako Musika Eskolako ikasleak. Eurak izan ziren, noski, protagonista egubakoitzean, baina han izan ziren, baita ere, eskoletako zuzendariak, irakasleak eta hainbat guraso.

Duela hiru urte egin zuten lehenengo kontzertua elkarrekin, Arrasaten; iaz Oñatin batu ziren, eta aurten Bergarakoak izan dira anfitrioi.

Emanaldia 18:40an hasi zen, baina 18:00etarako aretoa betetzen hasita zegoen: irakasleak azkeneko oharrak ematen ari ziren, umeak instrumentuak afinatzen eta berotzen, eta gurasoak lekua hartzen. Irakasle eta ikasleen artean urduritasun apur bat ere sumatzen zen.

200 IKASLE INGURU

Txistua, pianoa, metalezko musika tresnak, zeharkako flautak, gitarrak, bateria, biolinak... era guztietako musika tresnak entzun ahal izan ziren Bergarako Udal pilotalekuan ordu eta laurdeneko emanaldian, eta 200 bat ikasleren abilezia ikusi –8 urtetik hasi eta 18ra artekoak, gehienak–.

> 8 urtetik hasi eta 18ra arteko neskamutikoek egin zuten emanaldia

Eskoriatzako eskolako flauta taldeak ireki zuen emanaldia eta haien ondotik gaitariek jo zuten. Horixe izan zen kontzertuko talderik bitxiena. Izan ere, ez da oso ohikoa hemengo musika eskoletan Galiziako gaita irakastea.

Oñatiko eta Soraluzeko eskoletako hiruna taldek jo zuten. Arrasateren kasuan, askotariko instrumentuz osatutako taldea entzun ahal izan genuen eta Bergararen kasuan, orkestra sinfonikoa. Aretxabaletako eskolako dantza taldeak itxi zuen emanaldia. Eskola horretan musika zein datza irakasten dute eta biak uztartzen dituen emanaldi ederra egin zuten.

ANFITRIOIAK OSO POZIK

Ekitaldiaren oso balorazio positibioa egin digu Marije Ugalde Bergarako Musika Eskolako zuzendariak. "Beldurra geneukan publikoari dagokionez", esan zigun. "Eskolako ume guztiek egiten dutenean kontzertua badakizu ikusle asko egongo dela, guztien senitartekoak etortzen direlako. Aldiz, egubakoitzeko moduko kontzertuetan, non eskolako talde txiki batek joten duen, ziurtasun hori ez dago. Hala ere, jende asko etorri zen eta, oso pozik gaude".

DEBAGOIENEKO MUSIKA ESKOLETAKO IKASLEEN KONTZERTUA

A.L.

ARETXABALETAKO LEIZARRA MUSIKA ESKOLA | DANTZA TALDEA | Musikariez gain dantzariak ere prestatzen dituzte Leizarra eskolan. 47 dantzari eta 5 musikari aritu ziren.

A.L.

OÑATIKO JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA | TRIKITI ETA AKORDEOI TALDEA | Irlandako eta hemengo doinuak egin zituzten. Soka eta akordeoi taldeek ere jo zuten.



A.L.

ARRASATE MUSIKAL | TALDE INSTRUMENTALA | 20 bat musikarik osatu zuten taldea. Gaurko doinuak egin zituzten: *The Simpson* eta Elthon Johnen *Can you feel the love tonigt*.

Zenbakiak

3

Hirugarren aldiz egin dute halako kontzertua ibarreko musika eskolek. Lehenengoa Arrasaten egin zuten eta bigarrena, Oñatin.

6

Bost musika eskola daude gurean: Arrasaten Eskoriatzan, Aretxabaletan, Oñatin eta Bergaran. Soraluzekoak eurekin hartzen du parte hainbat ekintzatan.

200

Berrehun ume inguruk hartu zuten parte kontzertuan. 8 urtetik hasi eta 18ra bitartekoak ziren emanaldian jardun zuten gehienak.

11

Hamaika formaziok jo zuten. Besteak beste: flauta, biolin, akordeoi eta gaita taldeek eta baita familia ezberdinetako bikoteek ere.

MARIJE UGALDE | BERGARAKO M.E.-KO ZUZENDARIA

"Ibarreko musika eskoletan 2.000 ikasle inguru dago"

M.B.

Lehenengo Arrasate, gero Oñati, eta aurten Bergara izan da anfitrioi. Bertako eskolako zuzendari Marije Ugaldek emanaldiaren zergatiak eta helburuak azaldu dizkigu.

Marije Ugalde.

Duela hiru urte egin zenuten lehenengo kontzertua. Nola sortu zen ideia?

Ibarreko musika eskoletako zuzendariok batzartu egiten gara urtean birritan eta hantxe sortu zen asmoa. Interesgarria iruditu zitzaigun alde batetik, irakasleek ikustea beste eskola batzuetan zein lan egiten den, eta beste alde batetik, ikasleendako ere bai, kontzertu hauek aukera ematen dielako herritik irteteko eta ikasitakoa erakusteko. Horrez gain, ikusleendako ere interesgarria da. Bergaran, esaterako, ikusleak modu jakin bateko kontzertuak ikustera ohituta daude, eta egubakoitzeko kontzertuarekin gauza ezberdina eskaini diegu.

Ibarreko eskolen egoeraz jardungo duzue batzartzen zaretenean. Nolakoa da egoera?

Bai, egoeraz jarduten dugu, maila pedagogikoan, ekonomikoan... Egoera, oro har, oso ona dela uste dut eta ikasle asko dago; 2.000 inguru.

Halako kontzertuak ikasleendako hauspo ere izango dira.

Eskolara etortzen diren umeek jo nahi dute. Ez bakarrik eskolako emanaldietan, eskolatik kanpokoetan eta beste herri batzuetan ere bai. Hori izaten da euren gogoa. Azken batean, musika harremanak estutzeko bide ere bada, beste ikasle batzuk ezagutu, haiek nola jotzen duten ikusi... Bestalde, hainbat eszenatokitan jotzea ere aberasgarria da. Horrek errespetua sortzen du eta erronka da eurendako.

Datorren urtean non egingo duzue?

Agian, Eskoriatzan, baina oraindik zehazteke dago.

A.L.

SORALUZE MUSIKA ESKOLA | BIOLINAK ETA PIANOA | Flauta, piano, baxu eta bateriaz osatutako taldeak ere egin zuen emanaldia.

ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETA | ZAPATUAN HASI ETA BIHAR AMAITUKO DA SARIKETA

Akordeoi-jotzaileen maila parekatua dela-eta, oso lehiatua izango da aurtengo Nazioarteko saria

Asteburuan banatu dira gainontzeko kategorietako sariak eta bihar erabakiko da Nazioartekoa

J. B.

Gaurko azken kanporaketak gainditu eta gero, bihar jakingo da aurtengo Arrasateko Akordeoi Lehiaketaren Nazioarteko sariak nortzuek eskuratuko dituzten. Maila oso parekatua dute parte-hartzaileak, eta epaimahaiak jakinarazi duenez, faboritorik ez dago; izan ere, parte-hartzaile guztiek lortu dute aurten finalean egotea.

Hiru dira, Nazioarteko mailarekin batera, aldi berean egiten diren jaialdiak: Gipuzkoako jaialdia, akordeoi orkestrena eta Gipuzkoako lehiaketa. Hiru kategoria hauetako sariak banatu dira joandako asteburuan, parte-hartze eta giro bikainarekin. Ferixalekuan eta antzokian izan ziren kanporaketak eta Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko ordezkariek musikarien maila ezin hobea azpimarratu dute. Tartean, Aretxabaletako Akordeoi orkestrak egin zuen kontzertua, bere saileko bakarra. Guztira asteburuan ia 300 akordeoi-jotzailek jo dute Arrasaten.

AUKERAKETA ZAILA

Saririk lehiatuena, baina, Nazioartekoa izango da, bihar banatuko dena. Aurten 21 akordeoi-jotzaile aurkeztu dira eta denek lortu dute finalera sailkatzea. Azken saioak gaur izango dira eguerdiko 12:00tatik hasita. Epaimahaiak dagoeneko adierazi du aurten inoiz baino lan zailagoa izango dutela, oso maila parekoak dauzkate-eta. Finalistetatik bi, gainera, Euskal Herrikoak dira, Arantzazu Agirre amurriarra eta Philippe Ezkurra urruñarra.

Egitaraua

ASTELEHENA 5

- **12:00**: Amaia Antzokian, Nazioarteko lehiaketaren azken fasearen lehen zatia.
- **15:00**: Amaia Antzokian, Nazioarteko lehiaketaren azken fasearen 2. zatia.
- **20:00**: Parrokian, akordeoi eta ahots duoa. Primoz Parovel (Eslovenia) eta Hsin-Ying Chen sopranoa (Taiwan).
- **23:00**: Kajoi tabernan, Arraskate Band.

MARTITZENA 6

- **12:30**: Azken Gala eta sari banaketa. Amaia Lizaok (lehiaketako arduraduna) eta Aitor Furundarenak aurkeztuta, Amaia Udal antzokian.

AITOR LIZARRALDE

Gipuzkoako jaialdiko haur irabazleak, urrezko dominarekin.

KOMIKI LIBURUA | **'NUMENAK AITA' ASTEON AURKEZTU DUTE**

Unai Busturia eta Julen Rivas arrasatearrek *Numenak Aita* izeneko komiki liburua aurkeztu zuten eguenean Monterronen. Euskal mitologiako espiritu magikoak dira protagonista: Akerbeltz, Anbotoko Mari, Tartalo... Hala, pertsonaia horiez baliatuz, hainbat kondaira eta gaur egungo istorioak lotu dituzte hainbat kasutan. Esaterako, Diego Lopez de Haro Marirekin ezkonduko da arrasatearren istorioetako batean. Komiki liburua eskuragarri dago, dagoeneko. Durangoko azokan ere erosi ahalko da. | A.G.

POESIA | **OÑATIKO ELKAR HEZI IKASTETXEAK LIBURUA AURKEZTU DU**

Poesia liburua aurkeztu zuten Oñatiko Elkar Hezi ikastetxekoek egubakoitzean kultura etxean. Ikasturtean barrena Oñatikoekin batera, Baionako Bernat Etxepare Lizeoko, Orixe ikastetxeko, Tolosako Hirukide Eskolapioak ikastetxeko eta Laskorain Ikastolako ikasleek egindako olerkiak jasotzen ditu. Oñatiarren kasuan, azpimarratzekoa da olerkietako batzuk oñatiko euskaran daudela. Ekitaldi berean Auxtin Zamora olerkigilearen margolan erakusketa ere inauguratu zuten. | A.G.

TOYOTA

Orain Bergaran.

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA
943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

GIPUZKOAK AIREBERRITZEKO PREMIA DU.

GU AIRE FRESKOAREKIN GATOZ GOIZERO.

Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

Azaroaren 24tik plazan.

Hegoaldean euskaraz jardutea debekatuta zegoelako, Baionan grabatu zuen Mikel Laboak bere lehen diskoa, 1964. urtean. Aste honetan bertan hamazazpigarren lana aurkeztu du Bilboko Carlton hotelean, *Xoriek 17*. Hamaika urte egin ditu Laboak estudioetan sartu gabe eta hainbat lagunekin batera sartu da orain azken disko hau grabatzeko. Aurkezpen egunean, gainera, ondoan izan zituen horietako asko, Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Xabier Montoia eta Iñaki Salvador, esaterako. Mediku artean ibili da Laboa azkenaldian eta luze egin zaio grabazioa, baina gustura gelditu da emaitzarekin. Zuzeneko kontzertuak emateko gogoz dago, gainera.

MIKEL LABOA | MUSIKARIA

"Gogoan dut Artzeren 'Txoriak Txori' poema azkar musikatu nuela"

Oihana Elortza



O.E.

Bilbon aurkeztu du bere hamazazpigarren lana Mikel Laboak.

"Zaragozan eman nuen lehen kontzertua euskaraz, ikasleen jai baten"

"Aspaldiko laguna dut Zumeta eta ez diot azalpenik eman behar izaten azala egiteko"

"16-17 urterekin hasi nintzen gitarra jotzen; armonika ere jotzen nuen lehen "

"Musikari berriak ere izan ditut ondoan lan honetan; onak dira datozen musikariak"

Txoriak eta zenbaki bat daude diskoaren izenburuan. Bi elementuak sarri agertzen dira zure lanetan.

Bernardo Atxagaren ideia izan zen. Galdetu zidan ea zergatik ez nuen txoriei buruzko lan bat egiten. Ni ordurako hasita nengoen abesti berriak egiten eta horregatik ditu hiru zati lan honek; in memorian da beste atala, Atahualpa Yupanqui, Billie Holiday eta beste artista batzuen omenez.

Zenbakiena, berriz, 14tik 17ra egin dut salto, 15.a eta 16.a zuzenekoak ziren eta.

Kolaboratzaile asko izan dituzu lan honetan. Nolakoa izan da elkarlana?

Oso interesgarria izan da. Hartu-eman handia dut bai Iñaki Salvadorrekin eta baita Josetxo Silgueirorekin ere. Musikari berriak ere izan ditut orain ondoan; uste dut musikari onak ari direla sortzen.

Hainbat hizkuntza entzuten dira.

Ni hasten naiz abesten eta esaten dut batzuetan Ingalaterrako izkina bateko dialekto baten abestu dudala, baina gezurra da. Hizkuntza bakoitzak bere egitura du, mentalitatea ezberdina da toki baten edo bestean. *Komunikazio-Inkomunikazio* kantuan erakutsi gura izan nuen hori. Globalizazioa *txapuza* bat da.

Azala, beste behin, Zumetarena da. Noiz ezagutu zenuen?

Duela 30 urte baino gehiago. Gaur egun, disko bat atera behar dudala esaten diot bakarrik, gainerakoa berak egiten du eta beti gustatzen zait egiten duena.

Noiz hasi zinen gitarra jotzen?

16-17 urte nituenean. Nire koinatu batek, psikiatra bera ere, gitarra jotzen zuen eta hark sortu zidan zaletasuna.

Armonika ere jotzen nuen lehen, baina haize asko bota behar da. Gitarra, gainera, oso instrumentu osatua da.

Baina zure aitonak eta aitak musika bandan jo zuten eta amari gustatzen zitzaion abestea, ezta?

La Constancia izeneko bandan jo zuen gure aitonak eta seme-alabei erakutsi zien musika gero. Aitak eta amak asko maite zuten musika. Beethoven entzuten zen gure etxean, adibidez, ni txikia nintzenean. Koru bat egin genuen etxekook eta Gabonetan eta antzeko ospakizunetan abestu egiten genuen.

Nolakoa izan zen Ez dok Amairu mugimenduaren hasiera?

Bartzelonan izan nintzen ni haurren psikiatria ikasten eta hango *nova canco* mugimendua ezagutu nuen. Jorge Oteizaren etxean nengoela, horri buruz jardun genuen. Arkitektura ikasten ari zen mutil bat ere gurekin zegoen. Liburuak eta ipuinak ikusten hasi ginen. Oteizak ipuin bat hartu zuen eta pentsatu zuen haren izena egokia zela Euskal Herriko kultura piztuko zuen mugimendurako: Ez dok Amairu. Nik entzun nuen Orion bazegoela euskaraz abesten zuen mutil bat, Benito izenekoa. Haren telefonoa lortu eta deitu egin nion. Lurdes Iriondoren berri izan nuen gero eta hura ere etorri zen taldera. Horrelaxe hasi ginen, poliki-poliki.

Ze oztopo izan zenituzten garai hartan euskaraz kantatzeko?

Zentsura zegoen. Guri debekatu egin ziguten Gipuzkoan kantatzea bost urtetan. Gurekin batera, baita Azpillaga eta Lopategi bertsolariei ere. Komisaldegian ere izan nintzen bi aldiz.

Urte askoan izan zara egun erdiz mediku eta beste egun erdiz musikari. Noiz erabaki zenuen medikuntza uztea?

Bi aurrezki kutxa zeuden garai hartan. Franco hil ondoren ez zegoen transferentziarik eta aurrezki kutxa munizipalekoek erabaki zuten ez jarraitzea haur atzeratuekin lan egiten zuen programa batekin. Orduan erabaki nuen musikaria izango nintzela, ez medikua.

Poesia musikatzen duzu askotan. Baita herri poesia ere.

Hiru lerro nagusitan banatu daitezke nire kantuak: zaharrak, gaurko poeten letra musikatuak eta *Lekeitioak*.

Noiz egin zenuen topo *Txoriak Txori* poemarekin?

Artzerena da, baina argitaratu aurretik aurkitu nuen. Taberna batean, paperezko ezpain-zapietan poemak idatzi zituzten bi poetak. Gu tabernara sartu ginen baten, ezpain-zapi bat hartu nuen nik eta *Txoriak txori* poema irakurri nuen. Asko gustatu zitzaidan eta hartu egin nuen. Geroago kaleratu zuen Artzek. Gogoratzen dut azkar musikatu nuela poema hura.

Azkar eta ondo. Harrezkero makina bat aldiz entzun dugu, baita Julio Medem zine zuzendariaren *La pelota vasca, la piel contra la piedra* dokumentalean ere.

Beti ematen dizkiot egiten ditudan lanak eta Orfeoiarekin eta Euskadiko Orkestrarekin grabatutakoa ere eman nion. Handik hilabete batzutara esan zidan egiten ari zen lanerako ondo zetozkiola kantu batzuk. "Erabili orduan", esan nion.

Lehen kontzertua Iruñean eman zenuen. Eta Zaragozan abestu zenuen, lehen aldiz, euskaraz.

Only you abestia eta antzekoak abestu nituen Iruñeko kontzertuan.

Violeta Parra eta Atahualpa Yupanqui entzuten nituen nik lehen. Ikusi nuen ez nuela inoiz Atahualpak bezala abestuko, eta erabaki nuen euskaraz abestea. Lehen kontzertua euskaraz, Zaragozako Argensola antzokian egin nuen, han zeuden euskal ikasleek antolatutako festa baten.

Eszenatoki handietan edo txikietan egoten zara gusturago?

Denetan ondo. Euskararen aldeko festetan eta Bartzelonako antzoki handian ere eroso egon nintzen eta baita Zizurkilen ere.

Baduzu gogoa zuzeneko kontzertuak eskaintzeko?

Bai. Entseguekin hasiko gara orain eta programa egingo dugu gero. Ea laster azaltzen naizen.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupoetaldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Sabel dantza, sukaldaritza eta barreterapia tailerrak antolatu dituzte Bergaran

Hiru hilabetekoak izango dira, iraupen hori askorendako ondo dagoela ikusi dueta Bergarako Udalak

Leire Kortabarria

Urtarril, otsail eta martxorako sabel dantza, sukaldaritza begetarianoa eta nutrizioa, eta barreterapia ikastaroak antolatu ditu Bergarako Udalak. Izenemate epea zabalik dago kultura etxean edo 943 77 91 60 telefonoan abenduaren 23ra bitartean. Bergarakoek 15 euro ordaindu behar dituzte hileko; gainerakoek, berriz, 20.

Ikastaro horien berezitasuna da, hain zuzen, hiru hilabetekoak direla. Sistema hori probatu du Bergarako Udalak urritik abendura bitartean, beste hiru ikastarorekin, baita arrakastaz probatu ere, eta aurrerantzean horrelako ikastaro gehiago antolatuko dituzte. Nagore Narbaiza antolatzailearen esanetan, "jende askok esan digu hiru hilabete nahikoa duela; beste batzuei motz egin zaie".

LEHENENGOZ, ANTZERKIA

Oraingo ikastaro sortako berritasun nagusia da dantza ikastaro bat dagoela, jendeak hala eskatuta: sabel dantza. Egubakoitzetan, 19:00-21:00 ordutegian, emango du Oihana Albenizek. Irakasle horrek Arrasaten eman ditu eskolak, oso emaitza onekin.

Sukaldaritza begetarianoa eta nutrizioaren ikastaroa bi bergararrek emango dute, Jesus Mari Kalboetxeaga sukaldariak eta Mireia Alberdi nutrizionistak. Sukaldariak plater goxoak prestatuko ditu, eta nutrizionistak jatekoak konbinatzeko aholkuak emango ditu. Saioak eguaztenetan dira.

Barreterapia ikastaroa egokia da "nork bere burua ezagutzeko modu naturalean eta dibertigarrian", Narbaizak dioenez. Hori Amparo Urkolak emango du astelehenetan.

Labur

Opeth eta Arch Enemy taldeek kontzertu bana egingo dute

Bergarako Jam aretoan bi kontzertu egongo dira. Opeth eta Burst taldeek abenduaren 8an, eguena, joko dute, 20:30ean. Opeth taldea Suediatik dator eta jazza, stoner metala, AEBetako ekialdeko doinuak... nahasten dituzte. Zortzigarren diskoa aurkeztuko dute. Sarrera 20 euro da aldez aurreko salmentan, eta 23 txarteldegian. Bestetik, Arch Enemy metal taldeak egubakoitzean, hilak 9, joko du, 20:30ean. Taldeak *Doomsday Machine* diskoa kaleratu du aurten, eta berau aurkeztuko dute. Gojira taldeak ere joko du.

Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa zabalik dago, 14. urtez

Zabalik dago 14. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketan parte hartzeko epea, urtarrilaren 5a arte, hain zuzen. 1991n edo lehenago jaiotakoek parte har dezakete, jatorrizko, argitaragabe eta euskaraz idatzitako gutunekin. Lanak, jatorrizkoa eta hiru kopia, lelo sistema bidez aurkeztu behar dira honako helbidean: Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g; 20570 Bergara; edo *kulturajardun@topagunea.net* helbide elektronikoan. 450, 240, 150 eta 100 euroko sariak daude banatzeko.

Adin guztiendako moduko filmak emango dituzte Antzuolan

Adin guztietako ikusleendako moduko zinema emanaldiak antolatu ditu Antzuolako Udalak. Hurrengo emanaldia egubakoitzean, hilak 9, izango da Olaran etxean, 22:00etan: *Nadie Sabe* filma emango dute, hiri baten bakarrik bizi eta bizimodua aurrera atera behar duten lau umeren gainean.

Hurrengo emanaldiak hauek izango dira: *Asterix, hamabi probak* (hilak 11, domeka, 16:30ean); eta *Millones* (hilak 16, 22:00etan). Horiek ere Olaran etxean emango dituzte.

Hitzorduak

'BASERRIA' ZARTZUELA IKUSTERA JOATEKO SARRERAK DAUDE SALGAI |
Abenduaren 10ean, 11n, 16an eta 17an antzeztuko dute Amaia antzokian

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak eta Abesbatza Arrasate Musikaleko Orkestrak antzeztuko dute abenduaren 10ean lehenengoz, Baserria zartzuela. Amaia Antzokian izango dira saioak, lau guztira, eta jada sarrerak salgai daude.

Amaia antzokiko txarteldegian eros daitezke, egunero, 18:00etatik 20:30era.

Jesus Guridi musikariaren Baserria zartzuela Alberto Saezek zuzenduko du.

Emanaldiak abenduaren 10ean, 11n eta 16an 19:30ean izango dira eta abenduaren 17an, zapatua, 19:00etan.

ZINEMA |

• *Siete vírgenes* filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin
Kultura etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean.

• *Tigre y dragón* filma emango dute Elgetan
Espaloia antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

• *Coffee & cigarettes* filma, Oñatiko zineklub saioan
Oñatiko kultura etxean emango dute film hori eguenean, hilak 8, 20:00etan. Ingelesez emango dute, azpituluekin.

• Abenduan ez dago zinema emanaldirik Arrasaten
Abendu osoan ez dute filmik emango Amaia antzokian, beste kultura ekitaldi batzuk izango direlako.

ERAKUSKETAK |

• Gurutze Mujikaren margolan erakusketa Arrasaten
Gurutze Mujika margolariaren lanen erakusketa dago Harresi aretoan. Hilaren 18ra bitartean izango da zabalik, honako ordutegian: astegunetan, 18:00etatik 20:00etara; zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

• Euskarazko jostailuen erakusketa Eskoriatzan
Euskarazko jostailuen erakusketa egingo dute Eskoriatzako kultura etxean abenduaren 9tik 12ra bitartean. Umeendako euskarazko jostailuak eta CD-ROMak erakutsiko dituzte. 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

• Javier Ramosen margolan erakusketa Arrasaten
Javier Ramos margolariaren erakusketa dago Arregi markoztatze dendan, Maalako Errabalean.

IKASTAROAK |

• Dantza ikastaroa egingo dute Aretxabaletan
Dantza ikastaroa egingo dute Aretxabaletako gaztelekuan abenduaren 10ean eta 11n, 17:00etan.

• Hika ikastaroa antolatu du Jardunek Bergaran
Hika ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak Bergaran. Abenduaren 12, 13, 14, 15, 19, 20, 21 eta 22an izango dira eskolak kultura etxean, 19:00etatik 21:00etara, Juan Martin Elexpururekin. Matrikula 25 euro da, eta izenematea Jardunen egin behar da, edo 943 76 36 61 telefono zenbakian.

• Euskarazko jolas, kantu eta ipuinak
Helduendako 16 orduko tailerra antolatu du Udal Euskara Batzordeak. Astelehen eta eguenetan, 15:00-16:30 edo 18:30-20:00, eta zapatuetan, 10:00-12:00. Izenematea abenduaren 15era bitartean, udaletxean.

DEIAK |

• Benito Lertxundiren kontzertuko sarrerak
Benito Lertxundi kantautorearen kontzertua urtarrilaren 13ra atzeratu dute. Eskoriatzan izango da. Dagoeneko txartela erosi dutenek egun horretan erabili ahal izango dute.

• Bertsolari txapelketa nagusiko finalerako sarrerak
Bertsolari txapelketa nagusiko finala ikusteko txartelak saltzen ari dira Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko euskara elkarteetan, eta Bergarako Bilintx liburu-dendan. 25 euro da. Bertsozale elkarteak antolatu duen bazkarirako txartelak bakarrik euskara elkarteetan dituzue.

LEHIAKETAK |

• 19. Jokin Zaitegi itzulpen saria antolatu dute
Jokin Zaitegi sariketa deitu dute AEDk eta Elkarlanean etxeak, Literaturako Nobel sariak euskaratzeko. Aurten, Harold Pinterren antzezlanak itzultzeko 3.000 euroko beka emango dute. *The Lover* lanaren orri batzuk itzuli behar dituzte lehiakideek.
Honako helbidean daude: *www.elkarlanean.com/jokinzaitegi*.

Eguraldia

Euri zaparradak lagun hasiko dugu Durangoko Azokaren astea

Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da; hortaz, tenperatura ez da oso freskoa izango (12 graduren bueltakoa). Hala ere, giro hezea izango dugu erabat. Euria gogotik botako du, bai gaur bai datozen egunetan ere. Goi mendietan elurra ere egingo du eta gainera elur maila 1.500 metrotik 1.100 metrora jaitsiko da iluntzean. Bihar ere antzeko eguraldia izango dugu, naiz eta eguaztenerako barealditxo bat aurreikusten den. Izan ere, Azoreetatik gora egingo du antizikloiak eta gurera bidean da. Dena dela, kostako zaio iristea, eta zubi-egun euritsu eta haizetsuak izango ditugu eguazten iluntzera bitartean.

Goardiako farmaziak

ARRASATE		
Astelehena, 5	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
Martitzena, 6	Korkuera	Maixu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Eguaztena, 7	Irizar	Erguin kalea, 11 (943 79 12 39)
Eguena, 8	Amezua	Santa Maria, 33(943 79 09 74)
Egubakoitza, 9	Español	Araba etorb., 14 (943 79 18 65)
BERGARA		
Astelehena, 5	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 16 87)
Martitzena, 6	Zabala	Barrenkale, 25 (943 76 16 87)
Eguaztena, 7	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguena, 8	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Egubakoitza, 9	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
OÑATI		
Astelehena, 5	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 6	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguaztena, 7	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguena, 8	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 9	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
ARETXABALETA		
Astelehena, 5	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 6	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 7	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 8	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 9	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 28
6 · 27 · 28 · 31 · 34 · 49
Osagarria: 24 | Itzulketa: 9

Martitzena, 29
1 · 3 · 9 · 18 · 21 · 40
Osagarria: 10 | Itzulketa: 6

Eguaztena, 30
4 · 18 · 22 · 30 · 31 · 49
Osagarria: 21 | Itzulketa: 6

Egubakoitza, 2
1 · 13 · 14 · 22 · 32 · 42
Osagarria: 31 | Itzulketa: 0

ONCE

Astelehena, 28	**64.306**
Martitzena, 29	**82.316**
Eguaztena, 30	**36.197**
Eguena, 1	**57.978**
Egubakoitza, 2	**55.236**
Kupoitzarra (026 seriea)	
Domeka 4	**68.909**
Kupoitzarra (034 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 1
1 · 10 · 16 · 31 · 47 · 48
Osagarria: 32 | Itzulketa: 9

Zapatua, 3
4 · 14 · 18 · 24 · 27 · 47
Osagarria: 2 | Itzulketa: 3

Zapatua, 3 (Saritzarra)
8 · 25 · 36 · 39 · 54
Itzulketa: 5

Gazte zerbitzuak

IKASTAROAK |

• **Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak ikasteko ikastaroa.** Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak, herriko ikastetxeekin elkarlanean, bi ikastaro antolatu ditu. Bat euskaraz umeen jolasak, kantuak eta ipuinak ikasteko; bestea gaztelaniaz euskal kantu eta jolasak ikasteko. Epea: abenduak 15.

LEHIAKETAK |

• **Kartelak.** Hernaniko Udala. 2006ko inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Hernaniko Udaleko kultura sailak. Epea: abenduak 13.

• **Kartelak.** Irungo Udala. 2006ko inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udaleko kultura sailak. Epea: abenduak 30.

LANA |

• **Errenta kanpainak.** Aldundia. Errenta kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan poltsarako aukeraketa-probak. Euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna ez da nahitaezkoa. Ikasketa mailari dagokionez: ingeniaritza tenikoa, unibertsitateko diploma, Lanbide Heziketako hirugarren maila edo baliokidea eskatzen da. Epea: abenduak 7.

BEKAK |

• **Ikerlari eta teknologoak.** Eusko Jaurlaritzak . lizentziadunei egiten die deialdia. 6 beka Doktoretza aurreko Beken Programarako, 10 beka Teknologoen Prestakuntza Beken Programarako. Epea: abenduak 10.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com

gazte informazioa

Zorion agurrak

ARRASATE
Ane Zubizarreta
Azaroaren 26an, 9 urte. Zorionak! Familia guztiaren partez.

ARRASATE
Josu Garro
Azaroaren 30ean, 7 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.

ARRASATE
Kontxi Bedia
Abenduaren 1ean, urtebetetzea. Urte askotarako! Muxu bat. Lagunak.

ARRASATE
Aitor Madinabeitia
Abenduaren 2an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat. Josu eta Malenen partez.

ARRASATE
Jabier Urtzelai
Abenduaren 3an, urtebetetzea. Zorionak. Etxekoak.

ARRASATE
Malen Balerdi
Abenduaren 6an, 2 urte. Zorionak Pablo, Aner eta Martinen partez.

ARRASATE
Leire Gartzia
Abenduaren 7an, 2 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.

BERGARA
Asier Reguero
Abenduaren 8an, 5 urte. Zorionak! Bergarako aitita eta amama.

ARETXABALETA
Sandra Labrador
Abenduaren 2an 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

ARETXABALETA
Elene Berezibar
Abenduaren 2an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.

ARETXABALETA
Xabier Nuñez
Abenduaren 4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.

ARETXABALETA
Mikel Mulas
Abenduaren 4an, 10 urte. Zorionak! Ama eta anaiaren partez.

OÑATI
Ainhoa Mantxola
Abenduaren 3an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoen partez.

OÑATI
Nicolas Ryan
Abenduaren 5ean, 7 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoen partez.

OÑATI
Beñat Azkoaga
Abenduaren 4an, 8 urte. Zorionak! Gurasoak eta familia.

OÑATI
Julen Iriondo
Abenduaren 11n, 26 urte. Zorionak, Oñatiko bertsolari! Lankideen partetik.

ARAMAIO
Eider Ballina
Abenduaren 5ean, 10 urte. Zorionak! Gurasoak eta lagunak.

ARAMAIO
Ander Fernandez
Abenduaren 5ean, 10 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAn

Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAk** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAn

FM107.7

ARRASATE IRRATIA

Jaiotakoak

Nekane Garcia Hervas
Bergara • 3,625 Kg. Azaroak 27.
Gurasoak: Loli eta Jose Luis (Bergara).
Argazkian: Nekane aitaren besoetan, bapo lo.

Danel Gomez Lopez
Oñati • 3,300 Kg. Azaroak 28.
Gurasoak: Timo eta Jose Antonio (Oñati).
Argazkian: Danel amaren besoetan, txupete eta guzti.

Laia Guridi Ugare
Oñati • 3,620 Kg. Azaroak 30.
Gurasoak: Nagore eta Iñaki (Oñati).
Argazkian: Laia gurasoen erdian, bapo lo.

Julen Martin Valor
Bergara • 2,800 Kg. Abenduak 2.
Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Job (Oñati).
Argazkian: Julen amaren besoetan.

Gorka Ugarte Larrañaga
Bergara • 3,680 Kg. Abenduak 2.
Gurasoak: Maite eta Joseba (Bergara).
Argazkian: Gorka bapo lo bere kumatxoan.

Hildakoak

Estanis Kortabarria Azkarate-Askasua
Bergaran, abenduaren 1ean. 77 urte.
Itziar Amenabar Landa
Bergaran, abenduaren 1ean. 60 urte.
Manuel Urtzelai Martinez de Albeniz
Oñatin, abenduaren 2an. 76 urte.
Maria Albizu Idiakez
Bergaran, abenduaren 2an. 88 urte.
Amador Gomez Urrutxi
Bergaran, abenduaren 3an. 86 urte.
Dolores Arenaza Lasagabaster
Aretxabaletan, abenduaren 3an. 94 urte.
Carmen Gereta Mugarza
Oñatin, abenduaren 3an. 78 urte.

ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN
82 euro
943 25 05 01

Gaur irratian

Arrasate irratia
FM 107.7

'Igo autobusera' | 11:00

Gaztetxe eta Gazte Asanbladen gida

Gaztetxe eta Gazte Asanbladen gida aurkeztu dute asteburuan. Gida horren berri emateko ibarreko asanbaldetako ordezkariekin egongo dira iratiko kideak gaur, astelehena.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:00

Udal aurrekontuen banaketaren gainean

Onartu berri diren udal aurrekontuak izango dituzte berbagai astelehenean Oñati Irratian. Hain zuzen ere, Udaleko sail bakoitzak zer partida izango duen zehaztuko dute, eta aurreko urteetako aurrekontuekin alderatuta konparazioak egingo dituzte.

Radio Euskadi
FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Jonan Fernandezi elkarrizketa egingo diote

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Errusiako umeen adopzioen gainean

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Oñatiko Turismo Bulegoaren eskaintza

GOITB programazioa

Astelehena, 5

Asteburuko kirol emaitzak 'Harmailatik'-en 21:15
Asteburuko kirol ekitaldi guztien emaitzak emango dizkigu Julen Iriondok. Asteburuko protagonista izango da platoan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Behazulo.
14:15 Eltze beroa.
14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Bidetxurretik.
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ilunpean.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Didjeridu.
17:30 Motzean.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Berbaire.
18:15 Jaun ta jabe.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 16 mm.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Berriak.
22:15 Harmailatik.
22:45 Albisteak.
23:15 Jazz zikloa.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

Martitzena, 6

Eski denboraldi hasiera 'Behazulo' saioan 23:15
Arrasateko Athlon kirol medikuntza zerbitzukoek gomendioak emango dizkiete eskiatzaileei denboraldi hasieran.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazkiak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Jazz mintegia.
14:15 Zera dio.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Elkartasun bideak.
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Harmailatik.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Jazz.
17:30 Danbaka.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Erreportajea: Makila egilea.
18:15 Bidetxurretik.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Ilunpean.
21:45 Berriak.
22:15 Berbaire.
22:45 Albisteak.
23:15 Behazulo.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

Eguaztena, 7

'16 mm' saioan Kepa Aranburu protagonista 22:15
Kepa Aranburu oñatiarra izango da 16 mm saioko protagonista; *2057, odisea bat kanposantuan* film laburrarekin.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musika saioa.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Teknopolis.
15:30 M1.
15:35 Lazkao txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Behazulo.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Berbaire.
17:30 Zera dio eta Motzean.
17:45 Gaurkoak.
17:47 16 mm.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 Didjeridu.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Berriak.
22:15 16 mm: Kepa Aranbururen filma.
22:45 Albisteak.
23:15 Erreportajea.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

Eguena, 8

Maroko globoan zeharkatzeko aukera 18:15
Maroko globoan zeharkatzeko aukera eskainiko digu *Iparrorratza* saioak. Abenturazaleentzat eta bidaiak gogoko dituztenentzat.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Motzean.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Jaun ta Jabe.
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Jazz mintegia.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 16mm.
17:30 MKT musika.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Elkartasun bideak.
18:15 Iparrorratza.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Jaun ta jabe.
21:45 Berriak.
22:15 Didjeridu.
22:45 Albisteak.
23:00 Berbaire.
23:45 Berriak
00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 9

'Eltze Beroa' sukaldaritza saioa 17:30
Ttipi-Ttapa telebistak ekoiztutako sukaldaritza saioaz gozatu ahal izango duzue astelehen eta egubakoitzetan. Asko du ikasteko Argiñanok.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazkiak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Ikuskizuna.
14:15 Musika saioa.
14:30 M1. Eguraldia eta zerbitzuak.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Iparrorratza.
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Berbaire.
17:30 Eltze beroa.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 Jazz mintegia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Behazulo.
21:45 Berriak.
22:15 Ilunpean.
22:45 Albisteak.
23:15 16mm.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera.

Kamera aurrean

"Gaztelekuaren proiektua salgarria izan da orain arte. Gazteen oraingo belaunaldiak, ordea, beste zerbait nahi du "

KARMELO PEREZ |
EZKER BATUKO ZINEGOTZIA OÑATIN
Berriak, 2005-12-01

"18/98 sumarioan auzipetuei elkartasuna adierazteko deitu ditugu bilkurak enpresa eta eskoletan. Epaiketa salatzeko"

ANTXOKA ELORTZA |
FAGORKO LANGILEA
Berriak, 2005-12-01

Kepa Aranbururen '2057, Odisea bat kanposantuan'

'16mm':

Eguaztenean, abenduaren 7an, 22:15ean
Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster

Berriro emango dute:
Eguenean, abenduaren 8an, 17:00etan

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Abenduaren 5a: 067 zozketa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, abenduak 5, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

PHILIPS radio-kasete laser bat
• Maite Borque Garcia (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)
• J. Cruz Irizar Arabaolaza (Oñati)
• Arantza Balzategi Juldain (Arrasate)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
• Julia Osa Alberdi (Bergara)
• Lurdes Aldalur Uriarte (Aretxabaleta)

Abenduaren 12ko sariak

- **150 euroko BONU** bat, Bergarako Bidekurutzeta 7an dagoen **LAIÑO** dendan erosketak egiteko.
- Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOIAN** izango den Señor No eta Aterkings taldeen kontzerturako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!
Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu abenduaren 16an, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBER

ETXEKO TXIKIENDAKO SARIAK

Umeentzako joko dibertigarriak eskuratu nahi badituzu, txartela bete eta sarien zozketan sartuko zara.
Irabazleen izenak abenduaren 19ko *Asteleheneko Goienkaria*-n jakitere emango dira.

• Izen-abizenak:. . . . . .
. . . . . .
• Umearen adina: . . . . . .
• Telefonoa: . . . . . .
• Helbidea . . . . . .
. . . . . .
• Herria . . . . . .
• Posta-kodea: . . . . . .

Baldintzak:
• Nahi beste txartel bidali ahal izango dira.
• Txartelak jasotzeko azken eguna, abenduak 15.
• Ez da fotokopiarik onartuko.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate

Egoitza nagusia: **Bergara** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • *Posta-e: goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31**
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 *Posta-e: arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2**
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • *Posta-e: publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN**: 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
abenduaren
5a

Goizean: Euria
Arratsaldean: Euria

Hamarrekoa

UNAI ELORRIAGA | IDAZLEA

"Normalean lauzpabost liburu irakurtzen ditut aldi berean"

Marijo Deogracias

1. Oñatin egona zinen? Ibarreko hainbat ikastetxetan bai. Estimu handia diot; egon diren sortzaileak (Sarasuatarrak, Ruper Ordorika...) beti izan dira misterio handikoak eta erakargarriak. Badira Euskal Herrian leku bi, Iruñea eta Debagoiena, erakargarritasun berezia daukatenak.

2. *Vredaman*en lau istorio bildu dituzu, Tomas umearen begietatik. Zer dute umeen begiek? Begirada inozenteagoa daukate; ez daukate gizartearen presio hori. Umeak pentsatzen eta sumatzen duena esan egiten du eta hori nahi nuen.

3. Tomas umeak badauka Unairen antzik? Handia, guztia ez bada.

4. 3. adina, heldutasuna, umeen ikuspegia... Ze betaurreko jantziko dituzu hurrengo? Gazteenak. Lagun talde batez arituko naiz, hortaz, ikuspegia bestelakoa izango da, 20-30 urteko gazteena.

5. *SPra-ko tranbia*, *Van Hoffen ilea*, *Vredaman*; izenburu arraroak dituzu gustuko ala irakurlea nahasteko asmoa? Denetik apur bat. Soinu arraroak harrapatu egiten gaitu eta marketing apur bat ere bada. Misterio apur bat eman nahi izan diot.

6. Zure lanak zeuk itzultzen dituzu. Ofizioan ez duzu itzulpen nahikorik egiten? Azkeneko 2 urtetan ez dut itzulpenik egin, baina ez da gauza bera beste inorena itzultzea edo norberarena. Nirea berregitea da. Sentitu eta eman gura izan duzuna erdaraz ematea. Zortea dugu: trebetasuna izatea euskaraz zein erdaraz.

7. Getxo ere agertzen da zure azkeneko lanean. Nora bidaliko zenuke debagoiendar bat Getxon? Oraintxe datoz Madrilgo lagun batzuk eta oraindik ez dakit nora eraman! Nik dena maite dut, Algorta batez ere. Begiratoki asko daude itsasaldean eta leku horiek asko gustatzen zaizkit, asko egoten naiz han.

8. Zenbat liburu irakurtzen dituzu aldi berean? Asko. Atzo (egubakoitzean) hiru amaitu nituen. Normalean 4-6 irakurtzen ditut aldi berean; jangelako mahai handian ditut, inork ikusiz gero, itxura lotsagarria.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

***Vredaman*, bere hirugarren eleberria aurkezten izan da Unai Elorriaga (Getxo, 1973) Oñatin. Tomas umearen begietatik lau istorio batu ditu bere lehenengo eleberriarekin (*SPrako tranbia*) Espainiako Narrazio Saria irabazi zuen idazleak. Itzultzaile legez aritu izan da lanean, baina jada badira bi urte literaturan erabat murgilduta dabilela. Errugbi jokalari ohia da.**

9. Errugbia joko burutsua dela diozu Xabier Mendigurenek egindako elkarrizketan. Burutsuena. Arauak, trukuak, eraso-defentsak, jokaldiak... Oso konplikatua da. Bururik ezean ez zara jokalari bikaina izango.

10. Geratzen zaizu irabazitako Sari Nazionaleko eurorik? (Barreak). Dirua eta ni ez gara oso bateragarriak. Baten laneko nire soldata lankide bati sartu zioten eta hiru hil pasatu ziren eta ez nintzen konturatu.

Biharamuna

Iban Arantzabal

Gatzaga

Herri haundixak baiño gehixau gustatzen jataz txikixak. Badake berezko dinamika bat, badago taldian gauzak egitteko beste amorru bat... Zapatuan, esaterako, **Elgetako EHE**kuek burrundadia antolatu zeben euskerian eguna zala-eta. Zaratia etaratziaz gain informaziñua banatu zeben eta pentsau eragin. Aspaldixan egitten diran (eta egin biharko diran) kartel-osteko egonaldi asko baiño efektibuagua.

Guria baiño herri txikixago batek nauka inbidixaz, hala eta be. Gatzagan egon naiz astian **Agirreurreta**k gonbidatuta. Gatzagarren nahixa: informaziñua batzia Internetera merke eta ahal dan jende gehixen konektatzeko. Euskalteleko **Luis Mari Murua**k konbenzidu ez eta 20 lagun inguru batu giñan harena entzun ostian. Gaixa landu, handik komisiño txiki bat sortu eta lanian jarri dira gatzagarrak. Zalantza dakat herri haundixaguetan holakorik egin leiken. Egiten dan bakarra administraziñuari eskatzia da. Eskatu eta eskatu bai, baiña herri ekimen gutxi.

Beste komisiño batek be badihardu lanian Gatzagan. **Rosa Urreta**ri eginddako elkarrizketan jakin dot. Autobusak dira eskabide (gehittu deidan minimuetako eskabide logiko). Eta diño: 'Benetako amorrua ematen digu-na da Gatzaga Debagoienetik aparte dagoen herri bat dela ikustea, ahaztuta'. Eta hori esaten dabenetik ez dau errezoirik faltako, baiña Debagoienian egotia baiño gauza garrantzitsuagua dakazue Gatzagan: herrixa bizirik dago eta antolatu egitten da. Zorionak.

PRESTA ZAITEZ FRUTATEGI HOBERENEKIN GOZATZEKO

Laster Bergara-n

SUPER AMARA

SUPER AMARA • San Lorentzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara